



Isabel Celaá

«Esaten badugu
D ereduak
ez duela balio
euskalduntzeko,
baztertu egin
beharko genuke,
eta hori
izugarria da»

- **Josefina Campos** Azkoien fusilatutakoen oroimena berreskuratzeko lanean
- **Kotte Ezenarro**, PS «Zentro-eskuinarekin kohabitatzea izango litzateke aukeren artean okerrera»
- **Net Hurbil** Finantzen krisia abiaduragatiko istripua da
- **Rio + 20 goi-bilera** Ekonomia berdea, multinazionalen neurrira egindako jantzia
- **Emarock** Emakume musikarien gaineko topikoak apurtzeko ekimena

ARGIAko harpidedunentzat
eskaintza berezia

Elur-antzara

Paul Gallico

Ane Urrestarazuk itzulia

Uxue Alberdik irakurria


Aitziber Alonsok ilustratua



*Eskuratu dohainik eleberri honen **e-liburua** eta **audio-liburua***

"Elur-antzara"-ren gaiak bakardadea eta amodioa, bazterkeria eta elkarlana, gerra eta izadia dira. Bakartuta bizi den artista baten eta neska umil baten istorio hunkigarria kontatzen digu Paul Gallico-k.

1941etik, "Elur-antzara" ("The Snow Goose") ez da inoiz falta izan Ingalaterrako eta AEBko liburu-dendetan.



liburua

14 €

12,60 €
ARGIAko
harpideentzat

ARGIA eta HamaikaBooks-en
eskutik, "Elur Antzara"-ren
e-liburua eta **audio-liburua**
dohainik eskainiko zaizkie
ARGIAko harpidedunei.

Eskuratu zure pasahitza:

+34 943 371 545

harpide@argia.com



Azaleko argazkia:

ALEX LARRETXI

Azala: GARBINE

UBEDA GOIKOETXEA

Jabetza: Komunikazio Biziagoa, S.A.L. Lehendakaria: Ixabel Bereziartua. Zuzendaria: Xabier Letona. Zuzendariaren albokoa: Pello Zubiria. Astekariro erredakzio-burua: Estitxu Eizagirre. Asteko Gaia-Pertsonaia: Mikel Garcia. Iritziak: Mikel Asurmendi. Kultura: Gorka Bereziartua. Aisia: Unai Brea. Termometroa: Urko Apaolaza. Euskara: Onintza Irureta. Diseinua: Garbine Ubeda Goikoetxea. Interneteko erredakzio-burua: Lander Arbelaitz. Haria eta blogak: Jon Torner. Multimedia: Axier Lopez. Argazkilaria: Dani Blanco. Produktzioa: ANTZA, S.A.L.

Kudeaketa eta salmenta: Berdaitz Goia. Harpidetza: Karlos Olasolo. Idazkaritza teknikoak: Aloña Sorluze. Publizitatea: Idoia Arregi, Maite Arrieta, Ixabel Bereziartua, Olatz Korta. Administrazioa: Marijo Aiertza, Mari Karmen Loiarde. Harrera: Jone Arzallus.

HELBIDEAK: Gipuzkoa: Industrialdea, 15. 20160 Lasarte-Oria. Tel: 943 371545. Faxak: 943 373403 (erredakzioa), 943 361048 (komertziala). Lapurdi, Nafarroa Beherea eta Zuberoa: Xalbardin baita. 64122 Urruña. Tel: 559 476000. Faxe: 559 476001. Nafarroa: Gazteluko Plaza 44, 3. eskuinta. 31001 Iruñea. Tel: 948 222285. Bizkaia: Eleizalde 1, 2-D. 48600 Sopela. Tel: 94 6765580. POSTA ELEKTRONIKOA. Komertziala: komertzial@argia.com. Harpidetza: harpidetza@argia.com. Erredakzioa: kazeta@argia.com. Interneten: www.argia.com. Lege gordailua: SS-837-2012. ISSN: 0213-909X. Batzorde parekidea: 72562 E. Inprimategia: Antza S.A.L. Informatika: iametza interaktiboa, S.L. Urtebeteko harpidetza. Hego Euskal Herria: 138 euro. Ipar Euskal Herria: 168 euro. Espainia: 138 euro. Beste atzerriak: 173 euro. Airez: 271 euro. Komunikazio Biziagoa S.A.L. Ametzagaiña Taldeko partaidea da.



**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza
diruz lagundua



Gipuzkoako Foru Aldundia



• **NON ZER** •

2012ko ekainaren 3a, 2.325. zenbakia

Deabruaren abokatua

- **Iñaki Anasagasti:** «Ideologia serbilleta mutur batean kabitzen da». SUSTRAI COLINA / 4

Asteko gaia

- **Rio+20.** Ekonomia berdeak... berdetik izena baino ez. UNAI BREA / 5

Pertsonaia

- **Josefina Campos Orduña:** «Denbora iraganen da Itzulera operazioa finitu aitzin». MIEL A. ELUSTONDO / 10

Gaiak

- **Isabel Celaá:** «Alderdiok filosofia berean oinarritutako akordio inplizitua dugu hezkuntzan». MIKEL GARCIA IDIAKEZ / 16

Iritziak

- **Gora Pro Nobis** ASISKO URMENETA / 21
- **Soilik bihotzentzako?** GORKA MORENO MARQUEZ / 22
- **Txandan** Epika. IGOR ESTANKONA / 22
- **Gaiztakerian.** URTZI URRUTIKOETXEA / 23
- **Hiruko txikian** Sosen kontrola. JOXEMARI OSTOLAZA / 23
- **Zirtak** Perfekzioa (II). Trenak. JULEN GABIRIA / 25
- **Bertso berriak** Diputatu batekin hizketan jarriak. XABI PAYA / 26

Erdiko kaiera

- **Musika.** Emaion rockari! IRATXE ESNAOLA / 27
- **Liburuak** XABIER ETXANIZ ERLE / 30
- **Diskoak** IKER BARANDIARAN / 31
- **Ezpalak** JON TORNER / 32
- **Abarrak** JON TORNER / 33
- **Denbora-pasak** ANA ZAMBRANO, KIKE AMONARRIZ / 34
- **Zientzia eta teknologia** JOXERRA AIZPURUA / 36
- **Landareak** JAKOBA ERREKONDO / 37
- **Denboraren makina** NAGORE IRAZUSTABARRENA / 38

Termometroa

- **Kotte Ezenarro:** «Egitura instituzionalen eztabaida indartuko du Hollandek». MIKEL ASURMENDI / 39
- **Finantza krisia.** Corralitoaren itzal luzea. DANIEL UDALAITZ / 42
- **Raper euskaldunak.** Rapa amu euskarara biltzeko. AITOR ZABALETA MERINO / 44
- **Bero-beroan** JUAN MARI ARREGI, ONINTZA IRURETA AZKUNE / 46
- **Maltzagatik** XABIER LETONA / 47
- **Net Hurbil** Krisitzarra bizi dugun abiadak eragin digula. PELLO ZUBIRIA / 48

Azkena

- **Nori berea.** INMA ERREA / 50



“Ideologia serbilleta mutur batean kabitzen da”

Iñaki Anasagasti

Senatua Anasagasti politikatik baino lehenago desagertu baietz!

SUSTRAI COLINA

Argazkia: Iñigo Azkona

Hemen kafeari Baque eta politikaren oihanean bizirauten dutenei historiko esaten zaie.

Politika politika baino ez da, baina politika onik gabe munduak ezin du ondo funtzionatu. Beste batzuek egingo luketena ez litzaida-keenez gustatuko, nahiago dut nik egin.

Mundu guztia ezingo delako jubilatuko kexatzen eta zuk erretiratzeko asmorik ez?!

Benetako politikaria gaizki lurperatuta egon daiteke baina hilda ez: arnasa duen artean aspirazioak dauzka.

Abertzale baten erretiroa senatua dela diote mingain gaiztoek.

Hau fronteko lehen lerroa da, Athleticekin Bernabeun jokatzeko bezalakoa. Gol bat sartzen duzunean izugarri pozten zara, norma-lean gol guztiak zuri sartzen dizkizutelako.

Ez hasi biktimarena egiten, e, zure ibilbidean denekin paktatu duzu eta!

Politika elkarrizketa eta paktua da. Ideologia serbilleta mutur batean kabitzen da, eta gainerakoa harreman pertsonalak eta koiuntura dira.

Zenbateraino elkar maite duzuen ikusita, erregearekin paktatzekotan egongo zara orduan?

74 urteko aitona, krisi gorrian elkartasunaren apologia eginda, maitalearekin elefanteak ehitatzera doanean dena esanda dago, ezta?

Okerrena da PP, PSOE, eta gorteetako medio batzuek delituak tapatzen eta jarrera kondena-garriak isiltzen ari direla.

Eskerrak politikari batzuek beti pentsatzen duzuen esaten duzuen...

Bai zera! Politikari batek beti pentsatzen duena esango balu ez litzateke alderdirik existituko. Politikoki zuzena izatea egia esateko grina irenstea da.

Zergatik ez duzue inoiz dimititzen?

Politikari batentzat dimisioa baino okerragoa da hauteskundeetan hautatua ez izatea, eta bozka bat ez du etikak edo ideologiak baldintzatzen, marketinak baizik. Ez zara ohartu ez dutela beti onenek gobernatzen?

Ez da izango!

Demokrazia iritzi publikoaren ispilua da, eta ispiluan eder agertuko bazara zure perfil lirainenak zabaldu behar dituzu, ez zaitzaten epaitu ezkutatu nahi dituzun pikorten arabera.

Ikusten dut, bai, gatazka konpontzen oso zentratuta zaudela.

ETA desagertzean abertzaleek politika egingo dute eta kito. Hori bai, presoak daudeno ETA egongo denez, presoen gaia bideratzen saiatuko gara ETA desagertu dadin. ■



Rio+20

Ekonomia berdeak... berdetik izena baino ez

Ekainaren 20tik 22ra egingo da, Brasilgo Rio de Janeiron, Garapen Jasangarriari Buruzko Nazio Batuen Biltzarra, Rio+20 izenaz ezagunagoa, 1992an hiri berean egin zen Lurraren Gailurra gogoan. Goi-bileraren ardatza ekonomia berde deritzona izango da, hau da, “karbono emisio baxuak eragin eta baliabideak modu eraginkorrean erabiltzen dituen”, NBEren hitzetan. Ahots kritikoen –batez ere ekologisten– ustez, berniz geruza hutsa baizik ez da ekonomia berdea, ez baitu ezbaian jartzen hazkundearen logika.

UNAI BREA

1983AN, planetaren krisi ekologikoaz jabetuta, Nazio Batuen Batzar Nagusiak erabaki zuen batzorde bat sortzea, ingurumenaren arazoen diagnostikoa egin eta horren arabera hartu beharreko neurriak gomendatzeko. Batzordeak –Inguruaren Garapenerako Munduko Batzordea izendatu zuten– 1987an

eman zuen bere txostena, *Gure etorkizun komuna* izenburuarekin, nahiz eta, haren koordinatzaile nagusiaren omenez, Brundtland Txostena goitizenez ezagunagoa izan.

Txosten hura 1992an Rio de Janeiron egin-dako Lurraren Gailurraren ardatza izan zen. Zehaztasun handiz deskribatzen zituen inguru-

Ingurumena zaindu baina negozioari, hots, irabazien hazkunderi, uko egin gabe; horra ekonomia berdea esaten zaionaren muina. Desberdintasun sozialak eta krisi ekologikoa areagotu baizik egingo ez duen errezeta, haren aurka azaldu direnen ustez.





Pão de Açúcar mendia, Rio de Janeiro. 1992ko Goi-bilera amaitu ostean, Greenpeaceko kideek hemen ipini zuten pankarta erraldoia, Lurraren irudiaren alboan *sold out* (salduta) hitzak zituen. Ekologistek ez dute askoz emaitza hoberik espero Rio + 20n.

Parametro berdintsuekin egingo da Rio+20, baina planeta duela hoguei urte baino egoera larriagoan dela. Horren arrazoia ez da bakarririk Brundtland Txostenaren abiapuntu usteletik ezin zitekeela ezer onik espero. Gainera, orduko hartan adostu ziren neurri gehienak –besteak beste, Kyotoko Protokoloaren hazia izan zen Rio 1992– ez dira gauzatu, edo ez erabat behintzat. “NBEk ez du aginte nahikoa gobernuak behartzeko”, diote Iñaki Barcena, Nerea Gonzalez eta Rosa Lago Ekologistak Martxaneko kideek. Hirurak izango dira Rio+20n.

Goi-bilera honek utziko digun kontzeptu fetitxe berria “ekonomia berdea” izango da, ez dakigu –edo hau sinatzen duenak behinik behin ez daki– garapen jasangarriaren ordezkio edo osagarri, baina haren ildo berekoa erabat. Barcena, Gonzalez eta Lago ez dira Riora joango han bildutako agintariei txalo egitera beren-beregi.

Parametro berdintsuekin egingo da Rio+20, baina planeta duela hoguei urte baino egoera larriagoan dela. Horren arrazoia ez da bakarririk Brundtland Txostenaren abiapuntu usteletik ezin zitekeela ezer onik espero. Gainera, orduko hartan adostu ziren neurri gehienak –besteak beste, Kyotoko Protokoloaren hazia izan zen Rio 1992– ez dira gauzatu, edo ez erabat behintzat. “NBEk ez du aginte nahikoa gobernuak behartzeko”, diote Iñaki Barcena, Nerea Gonzalez eta Rosa Lago Ekologistak Martxaneko kideek. Hirurak izango dira Rio+20n.

Zer da ekonomia berdea?

NBERen 2011ko Munduko Txosten Ekonomiko eta Sozialean onartzen da ez dagoela segitzerik orain arteko negozio errutinarekin.

men arazoak, baina “ez zen gai izan arazo horien jatorriari erantzun egokia emateko”, Edgardo Lander, Transnational Institute-ko ikerlari venezuelarraren esanetan. Landerren analisiaren arabera, Brundtland Txostenak ez zuen kontuan ere hartzen eredu kapitalistaren etengabeko hazkundetik kanpoko inongo irtenbiderik. Ingurumenaren suntsipenari eta pobrezia aurre egiteko bidea hazkunde gehiago zen. Hori posible izango zen teknologiararen aurrerapenak aukera emango zuelako gero eta gehiago ekoizteko gero eta baliabide gutxiago erabilita. Hala jaio zen “garapen jasangarria” kontzeptua, 1992ko goi-bileraren ostean ofizialdua.

Ekonomia berdearen funtsa da ingurumenerako arriskuak teknologiararen bidez gutxitu daitezkeela, ekonomiaren hazkundeak bere horretan jarraitzen duen bitartean

Giza Erantzukizun Korporatiboa eta ekologisten eskariak

Ekologistak Martxaneko Iñaki Barcenak, Nerea Gonzalez eta Rosa Lagok kontaktu digutenez, duela hamabiren bat urte Kofi Annanek, artean NBEko idazkari nagusia zela, Global Compact estrategia jarri zuen abian, garapen jasangarriarako gobernuak ematen ez zuten dirua enpresa transnationalek eman zezaten. Neurria borondatezkoa zen, eta esan gabe doa, porrot egin zuen.

Rio + 20ko agendan dagoen gaitako bat Giza Erantzukizun Korporatiboa buruzko hitzarmena da. “Euren irudi kaxkarra berdetzeko eta kritikak desaktibatzeko bide bat da”, ekologisten ustez. “Interes publikoa egon beharko litzateke ororen gainetik, eta hala, enpresek derrigorrezko arauen arabera jokatu beharko lukete,

gobernuek herriaren kontrolpean ezarritako arauen arabera”. Ez dirudi horrelakorik aterako denik Riotik.

Ekologistak Martxanek dituen beste proposamenak ere nekez ikusiko ditugu gauzatzen. Aipatzekoak, horien artean, Ingurumenaren Mundu Agintearen eta nazioarteko Ingurumen Epaitegiaren sorrera. Lehenbizi-koak eskumena edukiko luke isunak jartzeko, eta bigarrenak gobernu zein enpresak epaitzeko.

Beste proposamen batzuek ekonomiarekin zerikusia dute, interesik gabeko moneta-sistema sortzea adibidez. Horretaz gehiago jakin nahi duenak 2011ko ekainean aldizkari honetan Pedro Prietori egindako elkarrizketa irakurtzea dauka (ARGIA, 2.279 zenbakia).



Bioerregaiak ekoizteko landatutako eremu bat, Perun. 2008an, talde ekologista ugari eskatu zioten NBERi bioerregai lortzera bideratutako landatzeak debekatzeko, elikagaien krisia areagotu eta lurrak eta ura eskuratzeko lehia biziagotuko zutela argudiatuta.

Baina ingurumenerako arriskuak teknologia-
ren bidez konpondu daitezkeela aldarrikatzen
du, ekonomiaren hazkundeak bere horretan
jarraitzen duen bitartean.

Idea hori da ekonomia berdearen funtsa,
eta Rio+20rako Nazio Batuen Ingurumen
Programak (NBIP) idatzi duen
txostenean jasota dago. Ez
dago zertan aukeratu garape-
naren eta jasangarritasunaren
artean, biak aldi berean posi-
ble dira, horra Brundtland
Txostenaren bertsio gaurko-
tua. Ekonomia berdeak, hor-
taz, erroan dauka gaitza: ez du
onartzen planeta finitu batean
etengabeko hazkunde ekono-
mikoa ezinezkoa dela, aipatutako Ekologis-
tak Martxaneko hiru kideek adierazi digute-
nez. “Gainera, ekonomia berdea
merkatuaren bidez garatu nahi dute”, gehi-
tu dute. NBEk, baiki, azpimarratu du eko-
nomia berdearen garapenean eremu pribat-
uak izango duen garrantzia. Negoziarako
esparru berria eskura daukatela esanez bul-
tzatu nahi dituzte enpresak beren burua
“berdetzera”.

**Industriak kontrolatuko du
ekonomia berdea. “Enpresa horiek
eskuak pozez igurzten ari dira,
ekonomia berdeak emango dien
negozio aukera ikusita”,
dio Ekologistak Martxanek**

Ekologistak Martxanek Rioko gailurra-
ren aurrean daukan jarrera azaltzeko plaza-
ratutako agirian irakur daitekeenez, “adie-
razgarria da konpainia handiek arreta
handiagoa eskaintzen diotela konferentzia-
ri gobernuek eurek baino”. Horren zergatia
da, azken batean, industriak
kontrolatuko duela ekonomia
berdea. “Enpresa horiek
eskuak pozez igurzten ari dira
dagoeneko, ekonomia berdeak
emango dien negozio aukera
ikusita”.

ETC taldearen *Norke kontro-
latuko du ekonomia berdea?* txos-
tenak xehetasun handiz emat-
ten du horren berri. Diotenez,
munduko industria handienak ari dira bio-
masaren borrokarako ondo kokatzen –bio-
masa baita ekonomia berdearen ardatzetako
bat, laster ikusiko dugunez–; lurrak eta
baliabide naturalak pilatzen ari dira, eta aldi
berean teknologia garatzen dute landare
jatorriko substantziak produktu industrial
bihurtu ahal izateko. Ondorioetako bat,
ETCk ohartarazi duenez, natura merkatugai
bihurtzea da.

Uretako bizia ere merkatugai: ekonomia urdina

ETCren *Nork kontrolatuko du ekonomia berdea?* txostena atal bat eskaintzen dio itsaso, laku eta ibaietako biomasaren erabilerari. “Kostaldea duten estatuak ari dira, dagoeneko, ekonomia berdearen uretako baliokidea sustatzen: ekonomia urdina”. Ur-biomasa landare zein animaliek osatzen dute, baina gaur egun industriak batez ere algak erabiltzen ditu. 2008an hamasei milioi tona ekoitzi zituzten; kopuru horren zatirik handiena elikagai modura saldu zen, baina hidrokoloide izena daukaten substantziak ekoizteko ere erabili zen. Mikroalgak, berriz, oso merkatu txikia da oraindik, elikagaien osagaiak sortzeko bideratua batik bat.

Algak oso erakargarriak izan daitezke biomasa industrialerako lehengai gisa, hainbat ezaugarri berezi dituzte eta. Esaterako, oso azkar hazten dira; barietate batzuk 60 zentimetro handitu daitezke egun bakarrean.

Bestetik, kopuru handitan ekoitzi daitezke leku txikietan. Alga mota batzuek metro koadroko eta urteko 16 eta 65 kilogramo bitarteko biomasa sor dezakete. Lehorreko labore emankorrenek 6-18 kilogramo bitartean eman dezakete denbora eta espazio berean.


Aspaldikoa da algak bioerregai bihurtzeko asmoa, oraingoz merkatuan arrakasta eskasa izan badu ere. Nolanahi, berriki sortutako zenbait enpresak erronkari helduko diote, ETCren arabera.



Geoingeniaritza, oraingoz geldiarazitako ideia arriskutsua

Nagoyan (Japonia) 2010ean sinatutako Aniztasun Biologikoaren Hitzarmenak moratoria ezarri zion arren, geoingeniaritzaren ideiak ez du indarririk galdu. Britainia Handiko Royal Societyk honela definitzen du: “Gizakiak eragindako klima aldaketa antropogenikoari aurre egiteko planetaren ingurumena eskala handietan manipulatzea”. Bi bide leudeke horretarako: atmosferatik CO₂ erauztea, edo are ikaragarriago dirudiena, eguzkiaren erradiazioa kontrolatzea. Adibide bat: azken unean bertan behera utzi zuten esperimentuan, ikerlari britainiarrek ura bota nahi zuten atmosferara, kilometro bateko altueran, tantek eguzki-izpiak islatu eta lurrera iristea eragozteko.

AEBetan, zenbait zientzialari eta militarrek gobernuari gomendatu diote moratoriari kasu egin ez eta geoingeniaritzaren alorrean ikerketa sustatzeko, “beraiek egiten ez badute beste norbaitek egingo duelako”. Txinak, bere aldetik, %10 gehitu nahi du euri kopurua, uza hobeak izate aldera. Eta horretan ari da.



Biomasa petrolioaren orde

Txostenaren aitzinsolasean, ETCk honela aurkezten du ekonomia berdea: “Asmoa da petrolioaren orde biomasa ustiatzea (laboreak, belardiak, basoak, landare olioak, algak...). Ideiaren sustatzaileek petrolio-osteko etorkizuna aurreikusten dute, non industriaren ekoizpena, erregai fosilen menpe egon beharrean, lehengai biologikoetatik eratorriko baiten”. Eta zer leku dute hor teknologia berriek? Bada, biomasa produktu salgarri bihurtzeko ezinbesteko tresna izango dira.

Biomasa biltegi handienak Hegoalde Globala deritzon horretako herrialdeetan daude, eta konpainiak, zer esanik ez, Iparraldean. ETCren iritziz, ekonomia berdeak “azken 500 urteetako baliabide bereganatze handiena” eragingo du. Are gehiago, prozesua hasita dago. ETCk berak ematen du datua, ikerketen zorrotasun falta dela eta datuak agian guztiz zehatzak ez direla onartu ostean: Hegoaldeko 50 eta 80 milioi hektarea artean eskuratu dituzte nazioarteko inbertsiogileek, horietatik bi heren Saharaz hegoaldeko Afrikan. 2006an, hamalau milioi hektarea —nekazaritzarako erabil daitekeen munduko lur guztiaren %1— bioerregaiak ekoizteko erabiltzen zen. 2030ean portzentaje hori %4ra igo daiteke, zenbait ikerketaren arabera.

Ustezko irtenbide teknologikoak

Ekologisten ustetan, honezkero esan duguenez, porrota besterik ezin dute ekarri Rio+20tik aterako diren akordioek, ekonomia berdean oinarrituko badira. Teknologia eraginkorrak ez dira aski hazkundearen logikak berezkoa duen kontsumo gehikuntza

geldiarazteko. “Gaur egun askoz eraginkorra-
goak gara lehen baino, materia zein energia
erabiltzen —dio Ekologistak Martxanek—, eta
hala ere batoren zein bestearen kontsumoak
handitu egin dira. Frogatuta dago, gainera,
errebote efektua dagoela: baliabide baten era-
bileran prozesu eraginkorrak lortzeak
baliabide hori gehiago ustiatzera eraman
dezake”.

Abiapuntua hori izanik, talde
ekologistek argi dute konponbi-
de miragarritzat aurkeztutako
teknologia berriek ez dutela
ezer konponduko; eta gainera,
inpaktuak eragingo dituzte.
“Gobernu eta enpresak arazoei
izkin egiten saiatzen dira, aurre
egin beharrean. Hala, CO₂ igor-
penak gutxitu beharrean, kar-
bonoa atzematea proposatzen da; erregai
fosilen erreserbak agortzen hasten badira,
energia kontsumoa gutxitu beharrean frac-
king-a bezalako teknikak garatzen dira hobi
berrietara iristeko; nekazaritza industrialak
klima aldaketaren erantzule nagusietakoa dela
frogatuta egon arren, eredu ekologikora jo
beharrean ereite zuzena bezain metodo
zalentzazkoak jartzen dira abian...”.

NBERen ekonomia berde kontzeptuak
arazo ekologikoen —eta sozia-
len— irtenbidetzat jartzen
dituen teknologietako batzuk
ezagun ditugu orrialde haue-
tan. Nanoteknologia, konpara-
zio baterako (ikus ARGIA 2.320
zbkia.). Edo transgenikoak.
Geoingeniaritzaren mehatxua
ere hor dago, momentuz lozo-
rroan bada ere (ikus alboko
orrialdeko koadroa). Beste
batzuk ez dira hain sona handi-
koak. Hona pare bat adibide:

Biotxarra

Ingeleseko *biochar* hitza euskal
grafiaz emateak hitz-joko poli-
ta sortzen du. Biotxarra mate-
ria organikoaren pirolisiz lortu-
tako ikatza da, hau da, materia
hori oxigeno gutxiren presen-
tzian errez. Haren defendatzai-
leek diote ikatz mota hori gehi-
tzen zaion lurzoruak karbonoa
atxikitzen duela eta, hortaz,
klima aldaketaren eragina leun-
tzen duela. Hori gutxi balitz,
ongarria ere bada biotxarra.
Baten orde, bi onura.

Haatik, hainbat ikerketak
gezurtatu du bata zein bestea.

**Talde ekologistek argi dute
konponbide miragarritzat
aurkeztutako teknologia berriek
ez dutela ezer konponduko;
eta gainera, inpaktuak eragingo
dituzte**

Ustezko ongarriak, uzta bi eta gero, landa-
reen hazkundera inhibitzen du, eta karbonoa
gordetzeari dagokionez, enpresek diotena
baino askoz azkarrago degradatu eta isurtzen
da atmosferara biotxarra.

Ereite zuzeneko nekazaritza

Hala esaten zaio lurra goldatu gabeko labo-
rantzari. Monsanto konpainiak
dio, eta FAOk, NBERen Elika-
dura eta Nekazaritzarako Era-
kundeak berresten du, sistema
hori erabilia zoruak karbono
gehiago bahitzen duela, eta
beraz gutxiago igortzen da
atmosferara. Klima Aldaketara-
ko Gobernuarteko Erakundeak
(IPCC) zalantzak agertu ditu,
baina.

Belar txar deritzonak kentzeko lurra gol-
datu beharrean, tradizioz egin izan eta egiten
den bezala, ereite zuzenak herbiziden erabile-
ra du oinarri. Ez da harritzekoa Monsanto
ibiltzea hurbil. Gaur egun 100 milioi hektarea
inguru lantzen dira era horretan,
Amerikan gehienbat, Roundup
herbizida jasateko diseinatu diren
landareak landatzeko. Ekonomia
izango da, baina berdea ez. ■





2012

Uda

**Haurrak,
gazteak eta helduak**

*Udalekuak, Barnetegiak Bilbon eta Bakaikun
Futbol Campusa, txangoak, antzerkia, oporrak,
bideoklip sorkuntza, igerilekua, tailerrak, akademia,
mintzamen taldeak, ikastaro trinkoak...*





Gabriel Aresti
euskaltegia eta akademia

www.gabrielaresti.com - Tel: 94 423 75 91 - Done Bikendi 2 - 4.a - Bilbo Elkarlan

Josefina Campos Orduña

«Denbora iraganen da Itzulera operazioa finitu aitzin»

Josefina Camposen Itzulera operazioak ez du autoen mugimenduarekin ikustekorik. 1936ko gerran bide bazterretan fusilatu zituztenak, leku gordean lurperatu zituztenak Azkoiengo hilerrira bidean jartzen egin du lan. *Los fusilados de Peralta, la vuelta a casa* (1936-1978) *Operación Retorno* liburuan du kontatua.

MIEL A. ELUSTONDO

Argazkiak: Zaldi Ero

Garai zaila bizi izan duzula esan didazu ezer baino lehen. Heriotza asko pilatu zaizkizula etxean oso denbora gutxian, fedeak lagundu dizula.

Arrunt fededuna naiz, ez dut apezetan erdizka baizik sinesten, baina uste osoa dut Jainkoagan. Elizak gerra garaian egin zituenak goiti-beheiti, badakit egunen batean epaitu egingen dituztela, gogor epaitu ere, mundu honetan edo bertzean. Elizak ez dit federik galaraziko. Mezatarra noalarik, ez noa meza esanen duen apezari entzuteagatik, eukaristia Jainkoak ezarri zuelako baizik. Erran dut, ez apezengatik, ez Elizarengatik ere, zenbait gauza gero eta makurrago baitzait instituzio horri onartzea. Fede kontuan, aitaren gisakoa naiz. Gure aitak gorriak ikusi zituen, kontzentrazio eremuetan izan zuten, Iruñean preso... Gerra ondoan, elbarri utzi zuten Iruñeko ospitale militarrean ebakuntza egin ziotenean. Jakina, halakoak egin zion ebakuntza! Zirujaua omen! Bat baino gehiago utzi zuen hark elbarri, bizkarrezurrean puntzioa egin eta hezur-muina hautsi ondotik. Gizatxarra, zinez, zirujau hura. Gure aita elbarri, betiko. Hala ere, erraten zuen: "Ez dut zeruko Jainkoagan eta Amabirjinarengan baizik sinesten! Teila gorrietatik behera, inorengan sinesteko ez eskatu niri!". Gorriak eta beltzak ikusi baitzituen!

Gorriak eta beltzak ikusi zituen aitak, zuk ere sufritu duzu...

Bai. Gero jabetzen zara zer den zure inguruan.

Falangearen kolegio batean ikasi nuen, Iruñean, Santa Maria la Real izenekoan. Gizarte gaien aldia zenean, gorriak gorri ziren, itsusi, adardunak, lipua baino makurragoak! Nik 8 urte nituen, banekien gure aita-amak gorrietakoak zirela, baina ez ziren ez itsusi, ez gaizto. Gure ama jostuna zen, anitz jende etortzen zitzaion etxera, preziatzen zuten. Kolegio hartan ginela, mojek zinez bertzela jokatzeko zuten gorrien alaba ginenekin, eta bertzeekin, gatua sakatzeko zutenen alabekin. Kolegioan bertan, iluntzean,

Nortasun agiria

Josefina Campos Orduña (Azkoi, 1942) jostuna izan da lanbidez. Errepublikarra zuen familia, gerra ondoan gogotik zigortua. Ama Dolores zenari senargaia, anaia bat eta zenbait lehengusu hil zizkieten, eta hondo-hondotik moztu zioten ilea. Aita Eugenio zuena, Errepublikako sarjentu, preso izan zuten Carabanchelen (Espainia) eta Iruñean, eta lan behartuak egin zituen trenbidean Castejonean. Aitaren aldeko amona bera ere kartzelan izan zuten 68 urte zituela, eta hari ere hondo-hondotik moztu zioten ilea. Azkoiaren fusilatu zituztenen oromena berreskuratzeko lanean hasi zen 1978an, eta herriko 84 lagunen hobiak aurkitu zituzten. Itzulera operazioa izan zen.





Aita Gurea

“Gure amak Azkoiendik Iruñera kolegiara ninderamala, erraten zidan autobusean, leihotik begira, Carrascal parean: ‘Begira, hemen nonbait lurpean behar du gure osabak. Esan dezagun Aita Gurea haren arimaren alde’. Eta, handik goiti, koskortu nintzenean eta Iruñera bidea bakarrik egiten nuelarik, Carrascal inguruan, soroetara begira joaten nintzen, hilobirik ikusten ote nuen, eta Aita Gurea errezatzen nuen, han hil zituzten guztien alde”.

logela handietan, moja zaindaria erretiratzeko zirelarik, solasean hasten ginen gorrien alaba ginenok; neska franko! Eta istorio-mixterio aritzen ginen, gure herrietan gertatutakoak, etxean entzundakoak, kontatzen genizkion batak bertzeari. Erriberako herri guztietakoak ginen han: Valtierra, Pitillas, Kaseda, Falces, Azkoi, Arguedas, Villafranca, Marcilla... Gure buruak libratzeko bidea genuen.

Etxean entzundakoak kontatzen zenizkieten elkarri. Etxe askotan ez zen ezer kontatu, zue-netan bai.

Kontatu? Gure aitak Internazionala ere kantatzen zidan! Gerra kanta bat baino gehiago! Gurean kontatzen zuten, kontatzen zuten. Aita elbarri genuenez, etxean pasatzen zuen denbora. Ama, berriz, jostuna genuenez, etxean hura ere, eta jendea etxera etortzen zitzaigun. Eta solasean aritzen ziren, eta gu entzuten, eta halako batean galdezka hasten ginen gu ere. Elizaren kontrako errefusa hura eta. Zenbait apezken kontrako solas gaiztoak! Ez genuen konprenitzen, eta galdetzen genuen. Eta erantzuten ziguten. Emakume anitz etortzen zen gure etxera, eta behin baino gehiagotan, negarrez aritzen ziren, amorraturik negarrez. Senideak ere franko etortzen zitzaizkigun. Izan ere, hala aitaren familian nola amarenean, gerran fusilatutak



TALLERES MITXELENA S.COOP.



Torno bertikala: Ø 4.200 x 2.000
Fresadora: 10.000 x 3.500
Barrenatze mekanizatua

Talleres Mitxelena, S.Coop.

Eziago Poligonoa • Zikuñaga Auzoa • 20120 HERNANI (Gipuzkoa)
T 943 55 25 12 - 16 • F 943 55 28 16 • info@talleresmitxelena.com

www.talleresmitxelena.com

genituen. Nola ez zuten, bada, hartaz solas egiten? Ezinbertzean. Dena den, egia da etxe batzuetan kontatzen zutela, eta bertze batzuetan ez. Jokatzeko moldeak dira, nork bereak ditu. Gurean ere, amaxik ez zuen deus erraten.

Filomena zenuen amaxi, amaren ama.

Bai. Behin erran nion amari: “Amatxik zer dio gerra kontuez?”, “amatxik ez du horretaz nirekin baizik solas egiten, biok bakarrik garenean. Eta horretaz solas egiten dugunean, amaxik negar egiten du”. Erraten omen zuen: “Kabroiak! Halako seme gozoa kendu zenidaten!”. Bertzalde, gure amak bazuen ahizpa bat, gazteagoa, neskatoa zelarik gerran ilea hondo-hondotik moztu ziotena. Gure izeba horrek “guraso oneko” alabak zituen lagun, eta haren aitzinean deus ez erraten saiatzzen ziren, erran behar ez zenik ez errateko beraren lagunekin zenean. Izeba hark ez baitzuen bere barnean deus gordetzen. Erratekorik bazuen, erraten zuen.

“Guraso oneko alabak” esan duzu. Batean, “guraso oneko” familiak; bestean, gorriak, pertsegituak. Hauetan ere, familia batzuk bereziki zigortu zituzten.

Bai, horretaz jabetu nintzen liburua izkiriatzen ari nintzela. Halako eta halako familiaren bila joan ziren, sozialista zirelako, edo UGTko kide, edo zernahi. Fusilatuak, ilea moztuak, kartzelara sartuak... Familia osoak zigortu zituzten. Osabari tiro egitera zihoazela, eskopeten aitzinean jarri zen amaxi, Filomena. Ama balkoian zegoen, begira, eta dena ikusi zuen. Orroka hasi zen gure ama, baita bertze auzo bat ere. Orduan, herriko praktikantea —erreketea, hala ere—, fortunatu omen zen parean. Eta, beharrik! inor hiltzea galara zi zuen. “Segi zuen etxera, makurragorik gertatu baino lehen”. Eta horrela. Tiro egitera zihoanari, berriz —odolzale gizatxar bat—,

Errepublikar

“Herriko hilerrian izan nintzen Errepublika egunean, aita zena apirilaren 14 batez hil baitzen. Errepublikarra barne-barneraino. Hiru hilobi ditut, bata bertzearen ondoan, tartean arrosadiak jarriak. Joan nintzen eta krabelin gorriak jarriak zituztela senar zenaren hilobian.

‘Ez! errepublikarra aita nuen. Haren eguna da gaur’. Eta aitaren hilobian jarri nituen krabelinak. Baina erran nion ene buruari: ‘Zu ere errepublikarra zinen, ama. Eta zu ere bai, amaxi. Eta zu, osaba. Eta, are, zu ere bai, senar maitea, errepublikar izatera heldu zinen!’. Izeba ez nuen errepublikartzat, baina, hil ondoan, eta haren hilobiaren oinetan, erran nuen: ‘Batek jakin!’. Ikustekoa zen nola jartzen zen gure izeba fusilatuen kontua hizpide zenean”.

handik alde egiteko agindu zion. Praktikante hark izan zuen bertze lanik, odolzale gizatxar hark ilea moztu zieten emakume guztiak eguberrietan garbitu behar zituela sartu baitzitzaion buruan. Praktikanteak galarazi zuen odol isurtze hura.

1936an gara, gerra sasoia.

Bai. Eta orduko agintariak! Menturaz, ez zuten inor hil, baina ez zait axola: bertzek hil zezan agindu zuten. Niretzat gauza bera da. Nire izeba batek erran izan du orduko agintari haiei ganean: “Gizajo hutsak baitziren!”. Nik ez diot barkatzen: “Alde hortik, gizajo hutsak! Dirua zuten, dena zuzentzen zuten. Gizajoak? Baita zera ere!”.

Liburuan ez duzu borrero izenik aipatzen, nahirara.

Bai. Agiri ofizialetan ageri diren izenak baino ez ditut jarri paperean: gerra-batzordean, karlisten batzordean, aldi hartako udalbatzan zirenak... Horien izenak bertzerik ez. Aldiz, Azkoiengo borreroen izenik ez dut jarri, haietako askoren seme-alabak fusilatuen seme-alabekin ezkondu zirelako. Gure gurasoek erraten zuten gisan, “inoren seme-alabek ez dute gurasoek egindakoen makurkerien kulparik”. Horretan naiz ni. Are gehiago, badira beraien familian fusilatuak dituzten bi seme, eta Fuerza Nueva-koak dituzu! 1981ean, errate baterako, izugarria muntatu zuten, eta, beharrik, han ziren eskuineko bat, eta bertze bat ezkerrekoa, borroka gerarazi zutenak. Erranen dizut: bi neska ziren, eskumuturreko erlojuan ikurri-na txipi bat zeramatenak. Fuerza Nueva-ko horiek, joan eta ikurrinak erauzi nahi izan zizkieten, eta, bistan dena, atzaparka egin zieten, eta azala urratu. Herriko plazan gertatu zen, hemen, Azkoienean, eta Fuerza Nueva-ko haiek pistolak ere atera zituzten. Haien aitaxiak burua jaso izan balu, berealdiko makilazoak emanen zizkien.



Bilbo

Liburu azoka maiatzaren 31tik ekainaren 10era, Arenalean

EUSKADIKO LIBURU GANBARA

- Euskal eta erdal nobedadeak
- Euskal musika
- %10eko beherapena

Bizi irakurriz!



AZKEN HITZA

Hilobiak

“Sozialistekin zinez etsirik nago, fusilatu eta desagertuen auzian deus egin ez dutelako. Hilobien mapa eginen ote duten ari dira, baina hainbat urte izan dira agintean, eta ez dute deus egin, deus ez, lana zaildu ez bada. Orain, berriz, hilobiak seinalatuko omen dituzte, anitz desagertu direnean, Iruñean, Aosen eta Agoitzen bezala”.

Zer izan zen 1978an, egunkarian Marcillako berri hura irakurtzean? “Gerra garaian fusilatu-tako 38 pertsonari omenaldia”, zioen albisteak. Orain ez dut egunkaririk hartzen, baina orduan bai. Iluntzean irakurtzeko ohitura nuen. Marcillakoa irakurri eta “zer da hau, ordea?”, hamar aldiz irakurriko nuen. Ohera sartu eta, jakina, loa ezin menderaturik. Marcillan egin zutena egin nahi izan nuen nik Azkoienean. Egin ere bai. Batasun handia izan zen horren inguruan gure herrian. Pertsona bat izan zen, aita eta aitaginarreba fusilatuak zituenak, erantzun ziguna: “Ezagutu ere ez nituen egin!”. Eta ez zuen deusetan lagundu, ez diruz, ez bertzela. Bertze emakume batek ere uko egin zion gure lanari. Alarguna zen, bigarren ezkontua: aita, anaia, senarra –hirurak batera hil zituztenak– eta bertze anaia bat Ebron hil zutena. Lau zituen hilak! Bagenekien Carrascal inguruan lurperatuak zirela, baina bertzerik ez. Emakume hark ez

zuen baimenik eman inor lurpetik ateratzeko. Erran zuen bazekiela non ziren lurperatuak, baina ez zigula erranen. “Zuk erraten ez badi-guzu ere, lasai, aurkituko ditugu guk”, gure erantzuna. “Aurkitzen badituzue, utzi bat bertan”, erran zigun. “Zer? Ezta pentsatu ere. Zure baimenarekin edo gabe, berdin aterako ditugu guztiak. Hiru seme-alaba dituzu, eta zuk nahi ez baduzu ere, ziur naiz haiek denak ateratzea nahi dutela!”. Hondarreko, hileta egin zelarik, eskutitza izkiriatu nion, gordin: “Zure seme-alabek hildako haien odola daramate zainetan. Zure obligazioa da haiei berri ematea”. Eta jakinarazi zien, eta hiletara etorri ziren. Gainerakoan, Azkoienean ez da izan fusilatuak lurpetik ateratzearen kontra.

Biktimen artean, batasun handia, salbuespenak salbuespen. Nola hartu zuten zuen asmoa borrero izan zirenek, edo haien oinordeek?

Denetarik izan zen, baina hasteko, erran behar da hiltzaile guztiak joanak direla mundu hone-tatik. Hilak dira denak. Haien oinordeetan, berriz, denetarik dago. Badira batzuk lehena berriz ere eginen zutenak. Lehengoan, neska batek erran zidana: “Hara, Josefina! Bazeneki zer gogo dudan. Halako eta halako hartu eta hilerri atarira eramanez nituzke, eta galdetuko nieke zer eginen ote zuten beraiek, aita edo ama non lurperatua duten ez balekite”. Badira, bai, alajak! Hala ere, aski ongi bizi izan gara bata bertzearekin herrian. Aski giro ona dago, hiltzaileak desagertu direnetik batik bat.

Autobusean

“Behin, demokrazia garaia ordurako, Azkoiengo alkate ohia autobusean, egunkaria irakurtzen, eta haren aitzineko aulkian emakume bat, familian fusilatuak izandakoa. Zer edo zer irakurri zuen alkate horrek egunkarian, eta hasi zen hoska: ‘Egoera iraultzen bada, horratik!’, eta hau eta hura. Aitzineko aulkiko emakumea itzuli eta asto beltzarenak eta bi erran zizkion. Bertze emakume bat, Azagrakoa, hura ere hoska: ‘Zer dugu hau, 36ko haietakoa edo?’. Hura zalaparta autobus barnean! Hondarreko, alkate ohiak isildu egin behar izan zuen. Hura ere bazen, alkate hura. Familiak berak bota zuen herritik!”.

Egin duzu liburua, egin dira fusilatu eta desagertuen oroimenezko monumentuak han eta hemen, legea ere egin da... Amaitu da “Itzule-ra operazioa”?

Ez, ez da finitu, eta denbora iraganen da finitu aitzin. Nafarroan halako zortea izan genuen, anitz herri bildu baikin, eta ezin izan zuten gure kontra egin. Korellan bezala. Ahal izan balute, egurra emanen ziguten, baina 3.000 lagun baino gehiago ginen manifestazioan. ■



**: Hedabide berri
bat sortzera doa
Euskal Herriko
garai berrirako.**

NAIZeko parte izan nahi baduzu,
sartu eta erregistratu:

<http://sortzen.naiz.info>



naiz:

hedabidea zara



«Alderdiok filosofia berean oinarritutako akordio implizitua dugu hezkuntzan»

EAEko Euskal Eskola Publikoaren jaia hilaren 10ean ospatuko dute Zarautzen. Aitzakia baliatuta, hezkuntza publikoaren osasunaz galdegin diogu Isabel Celaá Hezkuntza sailburuari, mahai gainean jarritz murrizketak, hiru eleko eredu, eskola mapa, irakasleen prestakuntza, hezkuntza sistemaren egonkortasuna...

MIKEL GARCIA IDIAKEZ

Argazkiak: Alex Larretxi

Egiaz ze aukera dago Espainiako Gobernuak hezkuntzan iragarritako murrizketak eragozteko?

Benetako aukerak ditugula uste dugu guk. Laster helegiteak aurkeztuko ditugu Auzitegi Konstituzionalean, gure eskumenak hartzen dituzten neurri guztien kontra, eta neurri horiek indarrrik gabe utziko ditugu. Lege dekretuaren neurrietako batzuk aukerakoak dira, erkidegoen esku, eta kontuan hartuz gure hezkuntza sistemak inguruko hainbat herrialdetakoak baino adierazle hobeak lortzen dituela —EBko batez bestekoak baino emaitza hobeak ditugu haurrak eskolatzan, eskola uzten duten gazte kopuruan...—, ez dugu inongo asmorik ondo bideratua dagoena aldatzeko. Eta hori aintzat hartuta sistema konplexua dela gurea, bi hizkuntza koofizial lantzen dituen —euskararen presentzia handiagoarekin, diglosi egoeragatik— eta ingelesari leku garrantzitsua egiten ari zaiona.

Dena den, Wert ministroaren aurretik dagoeneko murrizketak egitea leporatu zizueten sindikatuek. Adibidez, ikasle kopuruak gora egin arren irakasle gehiago ez hartzeagatik edo irakasleen bajak 6. egunera arte ez ordezkatzegatik.

Hori ez da hala. Lehenik eta behin, igarotzen ari garen krisi larriaren jakitun gara eta neurri eraginkorrak hartu ditugu 2009tik, beti ere bi eremu babestuz: ikaslea, bera delako ikaskuntzaren muina eta helburua, eta profesionalen enplegua, profesionalen lana duina izateak asko hobetzen duelako irakaskuntzaren kalitatea. Lehen, eskatzen ziren ordezkapen guztiak onartzen ziren, araurik gabe, eta guk ordenatu egin genuen hori: Haur Hezkun-

tzan edo hezkuntza berezian, lehenengo egunetik ordezkatzan dira bajak; LHn hiru egunera; eta DBHn, bost egunera. Eta irakaslea ez dagoen egun horietan, ikastetxeko zerbitzuek konpentsatzen dute hutsunea. Frogatua dugu bizpahiru eguneko ordezkapenak ez direla eraginkorrak. Baina Espainiako Gobernuak nahi duen bezala ordezkapena 10 egunera atzeratzeak esan nahiko luke horri aurre egiteko langile gehiago beharko lituzketela ikastetxeek.

Irakasle eta ikasle ratioei dagokienez, ez da egia ikasle kopuruak gora egin arren ez dugunik inor kontratatu. Iaz 200 kontratu berri baino gehiago izan genituen, baina egia da ratio txikiak aurkitu genituela, oso ikasle gutxiko gelak, eta sistemaren eraginkortasuna handitu dugula, beti ere ratioa gainditu gabe.

Eskola kontzertatuetan handitu dira ratioak...

Hitzarmenen barruan, baina eskola kontzertatuak ratio zertxobait ezberdinekin ari ziren funtzionatzen, ratio txikiagoekin. Kalitate oso handiko eskola publikoa dugu, eta oso ondo aritu den eskola kontzertatu sare osagarria daukagu, ondo baino hobeto finantzaturako sare, besteak beste derrigorrezko hezkuntzaren ondorengo etapa ere finantzatzen delako hemen, Espainiako gainerako lurraldeetan ez bezala. Beraz, zilegi da baliabide gehiago eskatzea, niri gustatuko litzaidake hezkuntzarako askoz baliabide publiko gehiago izatea, buruan ditudan ideia guztiak gauzatzeko, baina gaur egun ditugun baliabideekin konpondu behar gara, eta nahiko ondo egiten dugula uste dut.



Zein da ikasgela bakoitzerako ikasle kopuru ideala, eta zein EAEn hitzartutako gehienezko ikasle/irakasle ratioa?

Inork ez daki zein den ratio ideala, esan dezakegun bakarra da sistema merkatu dezakegula ikasgelatan 40tik gora ikasle sartuta, baina hori ez da soluzioa. Hemen 25-30 ikasle arteko gelak ditugu, Estatuko ratioen azpitik. Baina ratio malguak dira, noski, 26 ikasle daudelako bi talde egitea adibidez xahutzea litzatekeelako eta xahutzea gorroto dut. Gure baliabideak arrazionalizatzeko gauza izan behar dugu.

Gai ekonomikoarekin bukatzeko, unibertsitate arloan Ikasle Kontseilua kexu da Bolonia sartu zenetik asko igo direlako matrikulen salneurriak. Tira, kredituak lehen baino garestixeagoak dira, bai, baina kreditu gutxiago dago, beraz ikasle batek graduko titulazio baterako eta

"Gurasoek ikastetxea askatasun osoz eta nahieran aukeratze hori Esperanza Aguirrek Madrilen egin berri duen proposamena da"

lizentziatura baterako ordaintzen dituen tasak berdinak izan daitezke, batzuetan.

Tasak eta prezio publikoak igotzeko, berriz, Unibertsitate Politikako Kontseilu Orokorren akordioa behar da, baina Espainiako Gobernuak bere kabuz erabaki zuen erkidegoek %15-30 artean igo beharko dituztela unibertsitate tasak. Guk tasetan Kontsumorako Prezioen Indizea aplikatzen jarraituko dugu, eta horrekin batera ikertzen ari gara zenbat ordaintzen duen eta zenbat ordaindu beharko lukeen ikasleak, unibertsitateko ikasketen arabera.

Nola joan da hiru eleko ereduaren esperientzia pilotua? Zein dira ondorio nagusiak?

Erantzun aparta izaten ari da parte hartzen ari diren ikastetxeetan. Dakizunez, hizkuntza bakoitzari [euskara, gaztelania eta ingelesa] 20 orduko gutxienezko eskaintzea du oinarri ereduak, baina horrek ez du kentzen hortik aurrera ikastetxe bakoitzak hizkuntza horietakoren bati besteei baino ordu gehiago eskaintzea, %60ra arte. Ingelesa sartu gabe, mundu globalizatu honetan desabantailan izango gara, ezingo dugu Europara atera.

Bai, %60ra arte eskaini dakioke hizkuntza bati, baina D eredu ere ez denean berme izan ikasle guztiak euskalduntzeko, eredu hau ez litzateke euskararentzat kalte izango? Hartzen da kontuan ikastetxearen testuingurua?

Inolaz ere ez da euskararentzako kalte, eta bai, hartzen da kontuan ikastetxearen testuingurua. Begira, esaten baldin badugu D ereduak ere ez duela euskalduntzen, esaten ariko ginateke euskarazko hezkuntzak ez duela zentzurik...

... Baina Eskola Kontseiluak esana da, B eta D ereduko ikasleak euskara gaitasun eskasekin ateratzen direla...

Eskola Kontseiluak bi urte baino ez ditu aintzat hartu. Aurrera doan ibilbidea da hau, eta denboran aurrera egin ahala hobetu egiten da hezkuntzaren kalitatea eta kopurua. D eredu, 2002. urtean eskola amaitu zuen ikasleak —jaiotzez elebiduna ez dena, eta testuinguru erdaldunekoa— jakintza kopuru txikiagoa du 2010. urtean amaitu duen ikasleak baino. Zergatik? Euskara aurrera doalako, gizartean, eta eskolak ezin du dena egin euskalduntze prozesuan, baina eskola da



gehien egiten ari dena. Esaten badugu D ereduak ez duela balio euskalduntzeko, orduan baztertu egin beharko genuke, eta hori izugarria da... eta gainera gezurra. Kontua da neurketa hori egiten zela 12 urteko ikasleekin, eta ikaslea oraindik ibilbidean dago, matematikak ere oraindik ez ditu guztiz berreratuta, eta ez dugu esaten matematikak ez dakizkienik.

Erabateko elebidunak gutxi daude historian eta bizitzan, bi eleetan guztiz murgilduta dauden komunitateetan baino ez da gertatzen: Belgikako, Holandako, Suitzako zati bat, Gipuzkoa... baina erabat-erabat elebidunak... Eskolak egiten duen ibilbidea egin daitekeen goren da, baina LHko 4. mailan neurketa eginda, ezin du dena jakin oraindik. Batxilergoa bukatuta ere, erabateko elebiduna izango da guraso elebakarrak izanda? Ez, baina horretarako beste zerbait behar da, eta ari dira gauzak aldatzen, euskara gizartean ari da sartzen.

Eskolan euskaraz ikasi duen ikaslea, baldintza jakinak beteta, hizkuntza horren ezagutza bermatzeko agiriak aurkeztetik salbuetsiko duen dekretua onartu du Jaurritzak. Berriz ere, eskolatik ez badira denak euskaldunduta ateratzen, ez litzateke euskara maila frogatu beharko?

30 urte baino gehiagoren ostean bietako bat: edo esaten dugu euskarazko irakaskuntzak balio duela, edo ez duela balio. Guretzat balio du, neurtzen dugun bakoitzean ikusi dugulako kalitatezko irakaskuntza dela. Euskaraz emandako ikasgaien irakaskuntzak kalitate ezin hobea du eta beraz edozein gauza transmititzeko kalitatea du euskarazko irakaskuntzak, baita euskara bera irakasteko ere. Eta

“Lehen, eskatzen ziren ordezkapen guztiak onartzen ziren, araurik gabe, eta guk ordenatu egin genuen hori. Frogatua dugu bizpahiru eguneko ordezkapenak ez direla eraginkorrak”.

“Esaten badugu D ereduak ere ez duela euskalduntzen, esaten ariko ginateke euskarazko hezkuntzak ez duela zentzurik”

hori hala bada, 14 urtez hizkuntza horretan ikasi duenak nola ez du frogatua izango PL2 bat duela? Kontrakoa litzateke zera esatea: “Bai, egin dute, baina ez dugu sinesten”. Sistemak ziurtasuna eta bermea izan behar du.

Eskola mapari dagokionez, nola eragiten die gurasoei, haien seme-alabentzat nahi duten ikastetxea eta beraz hezkuntza proiektua hautatzeko aukerarik ez izatea?

Nire ustez lasai asko aukeratu dezakete, baina eskaintza-baldintzen barruan. Gurasoek ikastetxea askatasun osoz eta nahieran aukeratze hori Esperanza Aguirrek Madrilen egin berri duen proposamena da. Horrelako eskaerekin gertatu daitekeena da ikastetxe batek sartzeko ilara mugagabea izatea eta ondoko ikastetxea hutsik egotea, lehenengoa aktiboagoa delako, pizgarri jakinak dituelako... eta ez, eskaintza planifikatua beharrezkoa da (ikastetxetik gertu bizitzea, anai-arrebak hor eskolatuta egotea, errenta maila...); bestea desordena da. Beste gauza bat da irizpide bakoitzari ematen zaion lehentasuna, baina planifikazioa beharrezkoa da, eskaerara egokitutako eskaintza.

Baina proiektu pedagogiko autonomoa, kalitatezkoa eta bereizgarria egiteko ez al ditu desmotibatuko jakiteak ikasleak alirritzira etorriko zaizkiela (eta ez ikastetxearen proiektu pedagogikoagatik)?

Ikastetxeek euren hezkuntza proiektu autonomo eta bereizgarrian egiten dute lan, proiektu pedagogiko oso ezberdinak eskaintzen dituzte batzuek eta besteek, eta ez zaizkie ikasleak alirritzira etortzen; herri berean

egonik, ikasle batzuek kontzertatu bat edo beste hautatzen dute, edo publikoa. Beste gauza bat da, oso ezberdina, kontzertatu batzuek diotenean eskaintza baino eskaera altuagoa dutela eta haur gehiago matrikulatu ahalko lituzketela. Baina sare guztietan profesionalak ari dira lanean eta zer egingo dugu, eskaera handiagoa duen ikastetxe bati eskaintza handitzea baimentzeagatik beste bateko profesionalak bota? Planifikazioa lau urterako egiten da eta arauak jarraitu behar dira.

Egungo curriculumean garrantzi handia ematen zaie gaitasunenei, baina teoriatik praktika-ramateko zailtasunak daude. Inbertitzen al da norabide horretan?

Bai, etengabe. Edukiak bakarrik ez, gauzak egiten irakasten dugu, trebeziak garatzen, baloreak irakasten... Besteen sufrimenduari enpatia garatzen, esaterako; terrorismoaren biktimenganako enpatia, besteak beste.

Horri dagokionez, Jaurilaritzatik sustaturiko bake eta bizikidetza planak aldaketarik izan al du ETArek amaierarekin? Babes handiagoa bilatu al da?

Erabateko babesa dauka, salbu ELA, LAB eta EILAS sindikatuena, tamalez. Sindikatu horiek ez dute sinatu, baina bai eskola publikoko zuzendariek, gurasoek, Baketik edo Bakeola bezalako erakundeek, patronal guztiek. Sindikatuak ikusiko dute zer egiten duten, baina gai hau funtsezkoa da gure herriarentzat, hainbeste urtetan gertatutako izugarrikeria berriz gerta ez dadin hezi behar ditugulako belaunaldi berriak.

Zein ildo jarraitzen du irakasleen prestakuntzak?

Trantsizio garaitik, euskal irakasleria positiboki bultzatua izan da autoikasketaren bidetik. Lehenengo euskararekin, lan handia izan zen irakasleen euskalduntzea –1985ean irakasleen %5a baino ez zen elebidun eta gaur egun %85a dago euskaldundual–; eta orain teknologia berrien implementazioarekin, hor dugu Eskola 2.0. Milaka irakasle prestatu ditugu eta hurrengo ikasturtea bukatzerako 80.000 ordenagailu banatuko ditugu LHko 5-6 eta DBHko 1-2 mailetan. Egin dugun ikerketaren arabera, Eskola 2.0ri esker ikasleen %96ak handitu egiten du ikasgaiarekiko duen arreta eta interesa. Eta azkenik, hiru eleko ereduarekin ingelesean jarri dugu indarra eta gutxi gorabehera irakasleriaren erdiak ingelese daki.

Ordenagailuak banatu dituzuela aipatu duzu, baina azpiegiturak izan arren askotan ez al da falta teknologia berriak edukiz betetzea?

Eskola 2.0 martxan jarri genuenetik material berria eta berezkoa sortzen ari gara, deialdie-

0-3 adina

“Kargua hartu nuenean Anjeles Iztuetak egindako haurreskolen sare aurkitu nuen; sare ondo ari da lanean eta guk egin duguna izan da haurreskolen proiektua ikastetxe publikoarenarekin koordinatu, batetik bestera jauzi handia egon ez dadin. Kontua da Rajoyren Gobernuak berriz ere, atzeraka eginez, lanaren eta familiaren arteko kontziliaziorik hartu duela etapa hori. Eta guk betitik ulertu dugu 0-3 etapa, hezkuntza eta asistentzia etapa gisa. Ala urtebeteko umea ezin da hezi?”.

tara aurkeztu diren argitaletxe eta talde pedagogikoen bidez. Baina etorkizunean ezingo ditugu testu-liburuen doako mailegua eta Eskola 2.0, biak mantendu. Proiektu modernizatzailea antolatu behar da, liburu digitalen bidetik, eta argitaletxeekin harremanetan gaude horretarako.

Laster hauteskundeak izango ditugu. Ez al litzateke beharrezkoa izango beste herrialde batzuen gisan alderdien arteko gutxieneko akordioa hezkuntzan, gobernu berriek irakas-kuntza eredia nahieran alda ez dezaten?

Hezkuntzan badugu akordioa, baina bizitzaren edozein arlotan beti joera daukagu, agian herrialde honetan beste batzuetan baino gehiago, botilaren zein zati dagoen huts, arreta hor jartzeko, azpimarratzeko, eta ez diogu beterik dagoen zatia begiratzen. Euskal hezkuntza sistema da, beste edozeinekin konparatuta, dagoen sistemarik egonkorrena. Akordioetatik sortzen delako. Funtsean, partekatutako filosofia berean oinarritutako akordio inplizitua daukagu, eta hori da gure ondarerik handiena: denok nahi dugu hezkuntza sistema elebiduna, hezkuntza sistema ulerkorra 16 urtera arte (DBH 4 arte elkarrekin egon daitezela), 0-3 adina hezigarria eta asistentziala izatea, derrigorrezko hezkuntza ostekoa ere doakoa izatea...

Baina DBH 4ra arte elkarrekin egote hori alda-tu nahi du Espainiako Gobernuak, DBHri urte-bete jan eta Batxilergoari edo Lanbide Heziketa gehituz. Azken finean, Estatuko erabakiek eragiten diote hemengo hezkuntza sistemari, aipatu dituzun akordio horien gaindi.

Hala da. Batzuetan kanpoko faktoreek eragiten diote gureari, adibidez Rajoyren Gobernuak hezkuntza sistemaren egitura aldatu nahi izateak, gure ustez beharrezkoa ez dena. Zentzugabea da eskola uzten duten ikasle kopurua gutxitzeko Batxilergoan eskua sartzea, beste parametro batzuk dira. ■



SORTUKO DIRA BESTEAK 2012

MUNGIA
OLALDE ARETOA
URTARRILAK 14

IRUN
AMAIA ANTZOKIA
URTARRILAK 28

ARRASATE
AMAIA ANTZOKIA
MARTXOAK 31

BEASAIN
KIROLDEGIA
EKAINAK 9

ANDOAIN
BASTERO KULTURUNEA
EKAINAK 15

HONDARRIBIA
KARPA
IRAILAK 1

GETXO
GETXOFOLK
IRAILAK 9

IRUÑA
GAYARRE ANTZOKIA
IRAILAK 22

MAULE
JAI ALAI PILOTALEKUA
URRIAK 5

BILBO
ARRIAGA ANTZOKIA
ABENDUAK 1

DONOSTIA
KURSAAL
ABENDUAK 22

GASTEIZ
PRINCIPAL ANTZOKIA
ABENDUAK



Laguntzaileak:

argia

anza
kultura garaia

AKM KULTUR
PRONTOKIA
619421153



Gorka Moreno Marquez

EHUKO SOZIOLOGIA IRAKASLEA

Soilik bihotzentzako?

Ehortzen ari denarekin organoen transplanteei buruz hitz egitea, batzuentzat, akaso, beste alde batera begiratzea izango da. Lasai, gaurko honetan ez behintzat.

Espainian gorputz-organoen transplantee-rako garatu den sistemak arrakasta handia lortu du azken urteetan, sari ugari lortu eta eredu bihurtu lurralde askotan. Emaile gehien duen eredu da, milioi bat pertsona inguru.

Zein dira arrakasta hauen zergatiak? Adituen arabera sistemaren oinarria izatera publikoa da, anonimotasunari eta altruismoari garrantzi handia ematen zaiolako. Institutuzio publiko batek kudeatzen ditu emaileen datuak eta behar bakoitza asetzen saiatzen da. Sistemaren doakotasunari loturik, elkartasunaren bidez hiritar guztien arteko berdintasuna bermatzen da, eta era berean, beharriak dituztenen aukerak biderkatu egiten dira.

Zenbait lurraldetan, Alemanian kasu, eredu mistoak daude eta datu-base publikoak egoteaz gain pribatuak ere badira. Aditu gehienek ustetan sektore pribatua horrelako gai batean sartzeko arriskuak baino ez ditu sorrazten. Alde batetik, hiritarren berdintasunaren aurkako neurria delako eta dirudunek aukera gehiago izango dutela-



IÑIGO AZKONA

«
Gai honetan oso era
nabarian agertzen da
publiko-pribatu
harremanaren artean
sortzen diren tentsio
eta aldeko zein
kontrako argudioak
»

ko, eta bestetik, negozioa egiteko aukera izanez gero arrisku handiak sortu daitezkeelako bai emaile bai hartzaileentzat.

Laburbilduz, publikotasunaren dohainei esker da arrakastatsua espainiar eredu. Era berean, gai honetan oso era nabarian agertzen dira publiko-pribatu harremanaren artean sortzen diren tentsio eta aldeko zein kontrako argudioak. Hala ere, harrigarria da publikoaren dohainen inguruan adostasun handia egotea ezker zein eskuineko politikarien artean, eta beste hainbat gaietarako –gehienak arlo ekonomiko eta sozialari lotuta–, argudio berak desagokiak izatea. Organoen transplanteetarako elkartasuna eta berdintasuna oinarritzko elementuak baldin badira ere, beste arlo batzuetan indarra galdu eta lehiakortasunak eta eraginkortasunak hartzen dute lehentasuna.

Giltzurrunentzat balioagarria dena lan-merkatuaren kudeaketarako edo hezkuntzarako ez dago hain garbi. Krisi garai honetan eta bultzatzen ari diren neurriak kontuan harturik, organoen transplanteen ereduak hainbat irakaspeneren eskaintzen dituela iruditzen zait, bai bihotz transplanteen kasuan, baita pertsonen bihotzei eta ongizatei dagokieenez ere. ■



TXANDAN

Igor Estankona



Xaloegiak beharbada kopa altxatzeko, eta gazteegiak, gehienok, ulertzeko Milan eta Bartzelona kanpoan utzi eta gero galdu zuela Athleticen 1977ko final mitikoa. Juve hartan 1982ko munduko bost txapeldun zebiltzan, gainera. Alegia, *historikoaren* kontzeptua izan daitekeela handiagoa –futbola asko hazi da ordutik– edo txikiagoa –orduko UEFA gaitzagoa zen–, nondik begiratzen den.

Apur-apur eginda utzi zuten Fergusonen sotiltasuna eta futbola ulertzeko modua gurea ere bada: abiadura, zehaztasuna, kuraia eta mistika pitin bat,

Epika

eta jokoari fideltasuna. Bielsak ere ordena nahi luke, aski ingelesa den Bilboko Athleticen, berezkoa duen bipiltasuna galdu barik. Simeone beste eskola batekoa da, ordea, guri kalte gehien egiten digun futbol xuhurrarena. Eta onartu behar da talde txikiago batekin, gutxirakoa, finala sagaratu gabe, gainditu egin duela maisua. Eurentzako moduko partidua eurentzako moduko diskurtsoarekin osatu zuten: diskurtso-rik ez eta, ahal bada, partidurik ez. Zazpigarren minutuan, gol batek ezarri zuen istorio haren amaiera, ez ordea historiaren amaiera. ■



Urtzi Urrutikoetxea

KAZETARIA ETA IDAZLEA

Gaiztakerian



au ateratzeko asteburuak ekitaldiz beteta eta ziur aski balizko koalizioez ere idatziko denez, laburbil dezagun: urtebete barru bere burua abertzaletzat daukan lehendakaria izango dugu mendebaldean. Jeltzalea edo soberanista, hauteskundeak nork irabazi eta kartak zelan jokatu. Herritarroi, begiratzea eta bozkatzera omen dagokigu. Eta bultza egitea, gatazkaren ondorioak gainditzeko. Batzuek maite dituztelako nahi dituzte etxean, baina maite ez dituztenek ere badakite auzi hori gabe ez dagoela ixterik. Edo itxita ere, ofizialki itxitzat emanda ere, automatikoki zabalik dela. Argiago zioen Ed Milibandek iazko urrian: gaiari heldu ezean, haserre eta bizitzarako perspektiba eskasekin zeuzkan ehunka militante egoerari aurre egin beharko ziola zioen Europak. Ez da ohiko perspektiba, baina edonondik begiratuta ere, presoen gaia ondo itxi beharra nabarmentzen zuen britaniarrak.

Ulertzekoa da, neurri batean, hori guztia atzerarazteko Espainiaren estrategia, etsipena piztu nahia ere. Ilusioak independentismoa hauspotu duela ikusita bereziki. Eta, mahai hori itxita –deitu “teknikoa” edo “militarra”–, beste mahaia datorrela jakitun: gatazkaren beraren oinarriari, ez hainbeste hizkuntzak edo Erdi Aroko estatuak



INIGO AZKONA



Ulertzekoa da, neurri
batean, Espainiaren
estrategia, etsipena
piztu nahia. Ilusioak
independentismoa
hauspotu duela
ikusita bereziki



zilegitasun handiagoa ematen duen, XXI. mendeko Espainiaren baitan gauden baina geure burua naziotzat dugun bi lurraldek estatu osoari zilegitasuna kentzen diogula baizik. Eta horretarako galdetu beharra dauka, arrisku guztiekin: estatuaren baitan jarraitu nahi duzue ala bereizitako estatua sortu? Ikuspegi demokratikoa izatera, lehenak berebiziko indarra emango lioke Espainiari, mendetako itxitasuna apurtu eta naturaltasunez Europako testuinguru demokratikoan barneratzeko. Bigarrenak ere, bi nazio aberats “galtzearen” hasierako traumaren ondotik, on egingo lioke, dagoen horretan bere burua onartu eta aurrera egiteko.

Hortxe “bigarren mahai” horrek eztabaidatu beharrekoak. Jon Maiaren *Gazta zati zati* filman Angel Oiarbidek dioenez, “autodeterminazioa gai serioegia da alderdi politikoen esku uzteko”. Sekulako lezioa eman dute, Idiazabalen hasi eta Goierriin segi, Nazioen Mundua ekimenarekin. Ezberdinak elkartu eta aurreiritzirik gabe eztabaidatu, akordioak lortu eta oinarritzokoren alde egiteko: geuk erabaki nahi dugu, hala dagokigu. Gauzatu behar dugu eskubide hori, urteotako drama hau amaitu eta bebingoz lasai bizitzeko. Nazioen Mundu horretara bildu behar dugu. ■



HIRUKO TXIKIAN

Joxemari Ostolaza



Muga inguruan bizi garenok ohi-koia dugu gure diru pitxarrak bi estatuetakoa bankuetako kontu korrronteetan edukitzea. Alde

batean lana, bestean etxea. Alde batean lanskaria, bestean gastuak. Eta batetik besterako bidaian, bankuek komisioa hartzen dutenez likidoan garraiatzea zaigu merkeena. Aurreko astean Hendaia-koan sartu behar izan nuen, hara egin nuen bi hilabeteko saria patrikan nuela. Leihatilara jo eta bertako langileak sosaren nondikakoa galdetu zidan. Nire haserrearen adierazi aurrez, sosaren nondikakoa agiri batez frogatu beharko nuela, bestela, ezingo nuela sosa nire kontuan sartu

Sosen kontrola

esanda bidali ninduen. Gaur jakin dut Espainiako ogasunak diru beltzarentzat bidea libratu duela, bankura joan kontua ireki eta sosa sartu litekeela inongo agiririk gabe. Ez diotela inori ezer eskatuko, alegia. Hori bai, langile batek bildu leza-keenaz ez dute deus esaten, beltza behar du izan, pitxarra paketea baino patrikan kabitzen ez dena larruzko poltsa lepo behar duena. Ahal badut beste pitxar bat aurreratu larruzko poltsan sartu eta langile berarengana egin behar dut ea zer dioten. Eta dioenaren arabera sesioan sartzeko gogoia berdintzeari ekingo diot. Eta egingo dudanari eskandalua deituko diote. ■



Lurraldeak

Zonaldeak

Gomendioak

Jarri zure
bannerra

Gehitu
herri bat

Proposatu
zerbait

Euskal Herrian ihesi

Osa dezagun guztion artean geure gida sarean

Non jan dezaket Bermeon? Zer ikusi beharko nuke Maulen?
Non egin dezaket lo Tuteran? Bastidarrek bertara joateko
egun berezirik gomendatzen al dute?

Hurbil diezaiogun elkarri Euskal Herria



Euskal Herriko lehen turismo webgune interaktiboa

Herrietako informazio praktikoa, mapak, bideoak, ARGIAko Ihesi
erreportajeak, erabiltzaileen gomendioak, zeure proposamenak egiteko
lekua, zure iragarkia 0,50 €-tik aurrera...

ihesi.com



argia
proiektua

ZIRTAK

Julen Galbiza

IDAZLEA

Perfekzioa (II). Trenak

Bizitzan hainbat tren galdu ditut, eta, beste zenbaitetan, trenera hurbildu, leihoetatik barrura begiratu, nora zihoan asmatzen saiatu, barrualdea usaindu, eta estazio-buruak txistua jo duenean, trenari joaten utzi diot, eta urruntzen ikusi gero.

Galdetzen didatenean zergatik idazten dudan, ez dut beti egia esaten, nik ere ez baitakit oso ziur zein den egia, baina akordatzan naiz joan diren tren guztiekin.

Gaztetan, izango nituen hamar bat urte, gurasoek solfeoko eskola partikularretara apuntatu ninduten, nire ezintasuna ikusita. Lorategidun etxe batean, neska ilehori bat izaten nuen zain pianoaren aurrean, larunbat goizero. Egun batean, hirugarren eskola-egunean edo, lorategia zeharkatu eta, etxera sartu beharrean, leihoetik begira geratu nintzen; han zegoen neska erlojuari so, pianoaren aurrean eserita. Buelta erdia eman eta ez nintzen gehiago bueltatu. Geroztik, pentagramak kode deszifraezinak dira niretzat, euli hilen desfileak, eta gitarra bat esku artean hartzen badut, hariei kasurik egin ez eta egurra laztantzen hasten naiz, laztantzeko ezer hoberen faltan.

Gero pinturan hasi nintzen margolari ezagun baten tailerrean, eta ikasi nuen teknika, eta konbinatu nituen koloreak, eta kopiaitu nituen ereduak, eta ez nintzen harago joan, kopiatzea baino harago sekula ez. Barru-barrutik irten behar zitzaizkidan koadroak erabili gabeko pintura-poteen barruan geratu ziren, siku eta gogortuta; trena hartu dezakezula pentsatu eta muturren aurrean ihes egiten dizunean bezala, ezin sikuago eta gogortuago, hurrengo trena zein ordutan pasatuko den edo trenik pasatuko ote den ere jakin ezinda.



INIGO AZKONA


Bertsoak etorri ziren gero. Esan dezadan, laburbilduz, bertsoaren trenari nahita utzi niola ihes egiten, pozik gainera. Gernikan gertatu zen: Jon Lopategik proposatu zidan Bizkaiko Eskolarteko Txapelketan parte hartzeko, eta nik ezetz erantzun berehala. Bizitzan hartu ditudan erabaki guztietatik, huraxe izan zen heldutasunez hartu nuen lehenengoetakoa, eta ez naiz sekula damutu. Baina bertso munduak erakutsi zidan zer izan daitekeen sormena. Eta ikusi nuen, nire kasuan, sormena ez zela musika edo pintura, ez zela ezer abstraktua, ez antzeko bidezidor sent

tsorialik, eta sentimenduak adierazteko badaudela tren ugari, eta horietako bat hitza dela, hori bezain gauza sinplea, hain denona, hain oinarritzakoa, eta, zehazki horrexegatik, hain gauza konplexua.

Orain, urteak igarota, bertsolarien artean atezuan egoten naiz. Material bera darabilgun arren, ez naiz sekula sentitzen euren maila berean, baizik askoz ere beherago: euren komentario bakoitzaren ondoren, nahiko nuke gelatxo batera erretiratu eta ordu pare batez nire erantzuna pentsatu eta idatziz jarri.

Gero eta isilago egotea aukeratzen dut askotan, ahotik irteten zaizkidan hitzek nekez hobetzen baitute isiltasuna. Hitz egitea da, nire kasuan, zehaztasunetik urrunen egon daitekeen jarduna. Idaztea, berriz, pentsamenduaren ertzera heltzea da, perfekziotik hurbil geratzea, baina dianaren zentrotik kanpora ia beti. Batzuetan pentsatzen dut hitzaren trenari ere ihes egiten utzi beharko dionela egunen batean. Doala aurrerantz, eta gera nadin ni isiltasunaren esta-

zioan zutik, barruan dudana azaltzeko balioko didan beste trenen baten zain, baldin eta beste trenik badago. ■



irudia:

Antton Olariaga



BERTSO BERRIAK

Xabier Paga

Diputatu batekin hizketan jarriak



XDZ

O

Horoskopoa, Taurus,
Onintza, izena,
Enbeitatarren leinu zaharreko
“nietisima” dena.
Diputatu berria
espainolen Mekan...
ea neurtzen dituen hitzak
hitz-neurtuetan.

I

Antiguedad badoa,
badator gaztea:
**eta ganera neska,
zelako nahastea!**
Errekondori mahukak
jaistera al zoaz?
**Ez. Hobeto legoke
gorago jasoaz.**

III

Madril ez da Muxika,
ba al dakizu hori?
**Ez daukat garbi, baina
ez esan inori!**
Salamanca auzoa,
karua da, kontuz!
**Lavapiés, La Latina...
aukerak badoguz!**

V

Bizkaiko Txapelketa
tokatzen da aurtten...
**entrenatzera noa
hemiziklo baten!**
Diputatu bat ote,
Bizkaiko Txapeldun?
**Urte baten titulo
lartxo dira, lagun!**

II

Berez, han bada zure
glamourraren falta:
**nire ondoan zer dira
bada, bi, infanta?**
Nola jantziko zara
lehen egunean?
**Segun ze eguraldi
dan kapitalean.**

IV

Maitemindu ezkerro
PPko batekin...
**bihotzari ukorik
ezin jako egin...**
Zuk denei irri egin
Pantojak bezala...
**berak eskertuko deust
propaganda, ala?**

VI

Marianori kendu
artaziak behingoz
**aspaldian bizi da
herriari lepoz.**
Beharko duzu eta
zorte on, Onintza:
**datorren lege hartu
behar da bizitza!**



DOINUA: Ikusi nuenean.



Bidali zure sortak bertsoak@argia.com helbidera. Aukeratuak orri honetan argitaratuko ditugu.

erdiko katera

Musika

Emaion rockari!

Emarock proiektua jaio berri da. Batetik, emakume musikariak taldetan batzea eta zuzeneko kontzertuetara animatzea du helburu. Bestetik, emakume musikarien erreferentzia gune izatea.

IRATXE ESNAOLA

SAIOA CABAÑAS BARRENETXEA (Bilbo, 1982) hamabost urterekin hasi zen kontzertuz kontzertu kamera txiki bat aldean zuela musikariei argazkiak egiten. Denborarekin, geroz eta argazki hobeak lortu eta egun www.gauilunak.com orrialdea eta argazki galeria oparoa ditu sarean (www.flickr.com/photos/gauilunak). Berea da, hain zuzen, Emarock proiektuaren hasierako ideia. Argazki erakusketa baten prestaketan ari zela, emakumeen argazki soilez osatutako erakusketa osatzeko adina material bazuela ohartu zen.

Idea hari tiraka jabetu zen, ordea, euskal musikagintzan emakume ia denak abeslariak zirela. Zaila da batera edo gitarra jotzaile emakumezkorik aurkitzea. Eta zer esan emakumez osatutako taldeez. Euskal Herrian zer musika talde izan diren eta badiren ikertu du Saioak, baita emakumeek historian zehar musikarekin izan duten lotura ere. “Musikarik ezin ikas zezaketen garaietatik hasi eta gaur arte, emakumeok atzean utzi gaituzte musikan, beste arlo askotan bezala. Hutsune hori gogoan hartuta ekin nion proiektuari” adierazi digu Cabañasek, 2010eko abenduko hastapenak gogoratuz. Proiektua lagun askoren lanari esker gauzatu ahal izan da eta hainbat emakume musikarirekin elkartu ostean, txiki behar zuen proiektua handi bihurtu da, zeuden gabeziak ere halakoxeak izanik. “Gure asmoa ahalik eta emakume gehien zuzeneko musika egitera animatzea da. Emakume asko arlo pribatuan aritzen dira musika jardunean. Kontserbatorioak eta musika eskolak emakumez beteta daude. Baina kontzertuetara eta arlo publikora etorrira ez dago halakorik”.

Proiektuaren aurkezpen ofiziala maiatzaren 24an egin zuten, Tolosako Aranburu Jauregian antolatutako



Saioa Cabañas,
argazkilaria.
Bere ideia batek
jarri zuen abian
Emarock proiektua.

erakusketan. Bertan zuzeneko kontzertuen argazkiak eta emakume musikarien biografia eta elkarrizketekin osatutako dokumentala izan ziren, baita web orrialdearen aurkezpena ere, musikaz lagundua. Proiektua etengabeko sorkuntzan ari da forma hartzen, eta oraingoz, hamasei musikariri egin diote elkarrizketa. Esate baterako, Aiora (Zea



Mays), Saioa eta Maiteri (Mursego); zer musika estilo egiten duten axola izan gabe, baina kontzertuetan parte hartzen dutenak agertzen dira, betiere.

Aurkezpenaren ostean, Emarockek webgunearen bidez funtzionatuko du. Jada, bisitagarri dago proiektua sare sozialetan (facebook, twenti eta twitter). Web-gunean musikari bakoitzak bere profila izango du eta taldearekin harremanetan jarri ahal izango da erabiltzailea. Proiektuak epe luzera eragin nahi du eta bi fasetan banatu dute. Lehenengoan, euskaraz egiten duten taldeetan sakonduko dute, eta bigarrean, Euskal Herrian hizkuntza ezberdinetan jarduten dutenei helduko diete. Orain arteko lana eta etortzeko dagoena kudeatzeko Emarock kultur elkarteak eratu zuten 2011ko maiatzean, eta proiektuan lanean jende andana aritu bada ere, nagusiki neskak izan dira, ikuspegia neskena izateari garrantzia eman baitiote.

Ikusgarritasuna eta promozio bidea

Frogatxo bat proposatzen digu Saioak: “Galde diezaiogun jendeari mutilez osatutako zenbat talde ezagutzen dituen. Talde andanaren izenekin erantzungo dute. Nesken taldeez galdetuz gero, ordea, ez dakite, eta jakinez gero, aspaldiko garaikoren bat aipatuko dute, ziurrena. Hutsune hori aldatzeko asmoa ere badugu”. Ikusgarritasuna behar-beharrezkoa da ezein

«Lehenik, emakume ereduak behar ditugu, erreferenteak, jarraian emakume gehiago anima dadin. Begi bistan jarri behar ditugu, zeren emakume musikariak izan badira»

SAIOA CABAÑAS

diziplinatan erreferenteak sortzeko garaian. Dauden artistak ikusaraziz lortzen da berauek promozionatzea, eta aldi berean, sortzaile berrientzat ikur izatea. “Lehenik emakume ereduak behar ditugu, erreferenteak, jarraian emakume gehiago anima dadin. Begi bistan jarri behar ditugu, zeren emakume musikariak izan badira”. Estilo ezberdinak jorratzen dira gainera. Ez dute antzekotasun handirik Napoka Hiriak eta Gosek. “Musika estilo bat atsegin ez bada, normala da haren berri ez jakitea. Baina gure hutsuneak gustu diferenteetatik baino, erreferente faltagatik datoz” gogorarazten digu Saioak. Badira musika zuzenean egiten duten emakume musikariak, batzuk ezagunak, eta besteak, ezezagunak. Emakume partaideak dituzten eta Euskal Herrian kokatzen diren talde guztiei elkarrikketa egitea da azken helburua, oraindik askorekin harremanetan jartzea falta bazaie ere. “Web-gunean zerrenda bat izango da taldeekin. Hala nahi duenak, bere herriko eta inguruko taldeak zerrendara ekartzea nahi genuke, gu ezin baikara leku guztietara iritsi”.



Ondo pasatzea eta genero rolak aldatzea

Saioak ezaguna zaigun gogoeta luzatzen du: "Begirada bizkor bat nahikoa da: mutil mordoa elkartzen da 15 urterekin musika egitera, batere ona izan ez arren egiten dutena. Eta ez dago arazorik. Helburua ondo pasatzea da. Gure nahia emakumeek ere horixe sentitzea da. Musika egin dezakete eta ondo pasa, disfrutatu".

Olatz Aldasorok Emarock-erako egin duen logoak ere ideia hori berresten du. Anplifikadore bat da, proiektuak emakumeen musikaren bozgorailu izan nahi duelako, baina horrez gain, izartxo morea era badauka anplifikadoreak, "denak dira gure izarrak" esanez bezala. Publikotasunera jauzi egiteko eragozpenez gain, zenbait lanbide, jardunbide eta objektu

Erakusketa herri batetik bestera mugitzea dute helburu Emarockeko kideek.

generoz ezaugarritzen ditugu, oharkabeen askotan. Horixe gertatzen da musika instrumentuekin ere, genero zehatz batera lotzean. "Proiektuak zenbait joera normalizatu nahi ditu. Esate baterako, bateria jotzailea eta emakumea ez dira elkarrekin irudikatzen. Gu geu harritzen gara emakume bateria jotzailea ikus-tean! Harridura mota hori amaitzea nahi genuke. Ohitu egin behar gara, eta ohitu gaituzen, erakutsi". Emarocken epe luzeko helburua normalizazioa da, neskek, mutilek bezalaxe, aukera eta ausardia izan ditzaten beldurrak uxatuta oholtzara igotzeko. "Ez daitezela etxean gera musikarekin. Datozela arlo publikora. Neskak! Batu eta animatu talde propioa sortzera!". ■



2012/2013 ikasturterako
eskola agenda
 euskaraz // hirueleduna

egin zure eskaria

- ikastetxeendako pertsonalizatuak
- eskola agenda estandarrak

Guaixe KOMUNIKAZIOA | argi@guaixe.net | T. 948-564 275 / 948-562 107 Foruen Plaza 23 ALTSASU 31800

Liburuak

KRITIKA

Literatura dosi txikitan

Haur eta gazteen literatura

Xabier Etxaniz Erle

GALTZAGORRI ELKARTEAREN eta Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzaren ekimenez martxan jarri da “Klis-klasikoak” bilduma, haur eta gazte literaturan klasikotzat har ditzakegun hainbat lan argitalpen zainduetan birplazaratzeko. 2011ko amaieran argitaratu ziren lehen lau lanak, komiki bat, itzulpen bat, sor lan bat eta orain komentatzen hasiko garen liburu hau, tradizioa gaur egunera ekartzeko eginiko apustu eta lan interesgarria. Bildumak ez du formatu zehatzik, liburu bakoitzak berea du, baina guztietan zaindu da edizioa, bai testuak zuzentzean bai irudi eta argitalpenari dagokienez; eta, hain zuzen, zalantzak ditut liburuen azal gogor horien ordez ez ote liratekeen egokiagoak beste batzuk eta bilduman liburu gehiago argitaratu.

Batbirulau! liburua 1984 eta 1986 bitartean Erein etxean plazaraturiko hiru libururen batuketa dugu. “Maria Goikoak” sailean argitaraturiko liburu hauetan geure tradizioetik jasotako kontakizun, jolas, kanta, esatera, ateraldi eta abar gaur egungo haurrei era erakargarri eta modernoan aurkezten zaizkie. Testua,



Batbirulau!
Anjel Lertxundi.
Antton Olariaga.
Alberdania, Erein, Igela. 2011.

irudia eta maketazioaren arteko konbinaketak bizitasuna ematen dio lanari eta pittin bat hemendik, apur bat handik, puska bat orain eta pixka bat ondoren... jateko (irakurtzeko) moduko eskaintza egin. Eta horretan, aitortu egin behar da Olariagaren ekarpena testuak osatzen, zama arintzen eta orriak bizi-bizi igaro ahal izateko.

Liburuak, nire ustez, bi hartzaile zuzen ditu. Alde batetik etxean aurretik esan bezala zerbait irakurri, jolastu, ikusi eta ikasi nahi duen irakurlea, dela haurra bakarrik edo heldu batekin batera eginiko irakur ekitaldian (dastatze ekintzan); bestetik hurrekin aritzen diren guraso eta, batik bat, irakasleak ditu lan honek hartzaile. Zenbakekin jolasteko, aho-korapiloak botatzeko, igarkizunak asmatzeko, ipuin laburrak esateko, jolasteko, kantatzeko... aukera handiak eskaintzen baititu lan honek egunerokotasunean. Eta horixe da, gainera, Lertxundik eskaintzen diguna zenbait testutan, irakurleak zenbait kasutan ikusi egingo duelako ezaguna den kanta, jolas eta ateraldi batetik abiatuta nola eskaintzen digun beste bat (“Kalean gora, / kalean behera, / kalean gora / gondola / ai, ai, ai, ai”).

Ipuin ezagunak eta txistek ere ageri dira bilduma honetan, baina beti arestian aipaturiko helburu horrekin, literatura, irakurgai atseginak eskaintzea dosi txikitan, nekatu gabe irribarrea ezpainean izan dezagun luzaro edo une labur batean, liburu hau poliki irakur baitaiteke hala nahi izanez gero.








Noranahi zoazela. Nonahi zaudela. Zure jendearekin. Zure iritzia adierazi nahi duzunean, zeure erara. Euskara zure bizimoduaren osagaia da. Berezkoa duzu. Zu eta zure lagunen artean, zure giroan, **gozatu euskaraz.**



Bizkaiko Foru Aldundia
Diputación Foral de Bizkaia

Diskoak

IKER BARANDIARAN



Krem de la krem
Txapelpunk.
Autoekoizpena.
Iraupena: 39'41".
10 euro.

Transmisiorako ariketa nostalgikoa

LEHENENGO ALDIZ, Lekeition sortutako Txapelpunk taldeak diskoetxeetatik at autoekoiztu du lana. Sorreratik punka gaztetxoenei ezagutarazi nahi izan dien laukoteak bere helburu irmoa borobiltzeko moduko diskoa plazaratu du oraingoan. Hain zuzen ere, Inñigitoren eta gainontzeko taldekideen musika heroiak, ia-ia guztiak Euskal Herrikoak eta 80ko hamarkadakoak, omendu eta entzuleei ezagutarazi dizkiete. Bertan Ume Gaiztuak, Eskorbuto, Kortatu,

MCD, Cicatriz, Bap!, Zer Bizio, Etsaiak, Delirium Tremens eta Orquesta Mon-dragonen kantuak berreskuratu dituzte, beti ere jatorriko modu ia berean interpretatuta. Baina badira, baita hain eza-gunak ez zirenak ere: Zurrapak eta Askaturenak –Inñigitoren lehen taldea–; eta ingelesez abestutako Txapelpunken kantu berri bat punk-pop estiloetan barneratzen dena.

<http://www.myspace.com/txapelpunk>

Inñigito - Txapelpunk

«Gure betiko taldeak omentzeaz batera, gure talde gustukoenak erakutsi nahi izan ditugu»

Nori zuzenduta dago diskoa? Beste hamarkadetako musikaren nostalgikoei edo gazteagoei, azken horiek zuen eraginak ezagutu ditzaten?

Disko honetan gure betiko taldeak omendu nahi izan ditugu, eta aldi berean jendeari gure talde gustukoenak erakutsi. Lehenik eta behin guretzat egin dugu eta gero entzun nahi duen jende guztientzat, bai nostalgikoentzat eta baita gazteentzat ere.

Erraza izan da taldeen aukeraketa?

Mahai gainean kanta asko jarri genituen eta denon iritzia kontuan izanda, 14 honek aukeratu ditugu.

Kantu ia guztiak 80ko hamarkadakoak eta RRV-koak dira. Ez da kasualitatea, ezta?

Ba ez, ze hamarkada horrek eragin handia izan du nigan, rock mundua bertan ezagutu nuen. 15 urterekin lehenengo taldea sortu nuen, Aska-



tu. Orduan ez genuen ezer grabatu eta nire hastapenei keinu eginez kantu bat berreskuratu dut.

Zer izan zuen garai hark? Eta orduko kantuek?

Garai guztiz errebeldea zen. Jendea hitzekin identifikatzen zen eta talde haiekin guztia ematen zuten. Nahiz eta talde askotako partaideak gaur egun ez dauden hemen, heroiak berarekin eraman dituelako. Kanta guztiak osti txarrez betetako eres-
Argi

ziren eta garaiko errealitatea islatzen zuten. Orduan taldeek eta jendeak ez zuten soinua baloratzen, abestia bera baizik. Kanta bat ona bada, ona da soinua ona edo txarra-ekin, edo ondo jota edo txarto, eta garai horretako taldeak kantu onez beterik zeuden.

Abestiak ezer gutxi aldatu dituzue. Nahiago duzue diren moduan errespetatzea?

Bai, kanta orijinalak horrela-koak dira, horregatik gustatzen zaizkigu, eta diren moduan grabatu ditugu.

Ingelesez abesten jarraitzeko asmoa daukazue?

Bai. Kaliforniako diskoetxe batekin harremanetan gaude. Gure kantu batzuk aukeratu ditugu, eta hauek ingelesera itzuli eta grabatzen gabilza apurka. Aurrerapen gisa, disko honetan kantuetako bat sartu dugu. ■



Ezpalak

JON TORNER / GORKA BEREZIARTUA

Geroz eta bilgune zabalagoa bihurtzen ari da Literatura

ELKARLANA izan da Larranbetzuko (Bizkaia) Literatura jardunaldien ezaugarri nagusienetako bat sorreratik eta urtetik urtera gehiago nabaritzen da hori.



Durangoko Azokarekin eskuz esku ariko da Literatura aurtien, azoka horretako zuzendari Aiert Goenagak atzo esplikatu zuenez. Azokako antolatzaileek sortutako *Askara* zikloa, euskal kultur-gintzaz hausnartzea helburu duena, Larrabetzun abiatuko da eta Azpeitia, Donostia eta Gasteiz ere bisitatu dituzte.

111 Akademiak ere parte hartuko du Literaturian, Euskal Herriko irakurle taldeei buruzko mahai-inguruaren bidez; Euskal Herriko Antzerkizale Elkartek ere bai, ekainaren 1etik 3ra postua edukiko du eta Kukubiltxok *Inorako bidaia* antzezlan eskainiko du. EIZIEk itzulpengintzari buruzko mahai-ingurua gidatuko du eta Larranbetzuko herri elkarateek dena behar bezala joateko beharrezko azpiegitura prestatu dute.


Nobedade editorialak ere aurkeztuko dituzte Literaturian, Joxe Azurmendiren eta Itxaro Bordaren liburu berriak edo Fernando Pessoaen poema antologia baten itzulpena, besteak beste.

Programazioa eta bestelako informazioa kontsultatzeko: www.literaturia.org.

Didier Sablon (Dj Alf) Ziburuko (Lapurdi) M.A.K. hip hop eta rap musika taldeko kidea hil egin da. Lyon hirian (Frantzia) jaio zen Sablon. Baionara etorri eta euskara ikasi zuen AEKn. 2003an sortu zen M.A.K taldearekin bi disko plazaratu zituen: *Suari darion kea* (Esan Ozenki) eta *Suaren garai errants erreka* (autoekoizpena). Ekainaren 21ean omenaldia egingo diote Bidarteko (Lapurdi) hondartzan.

Aranzadik monumentu megalitikoaren bilatzaile kartografikoa sareratu du. 250 monumentu megalitikoaren kokapen zehatza, informazio osagarria eta argazkia bildu dituzte webgunean. Elkartearen arkeologia atala 1982tik osatzen joan den karta arkeologikoen informazioari esker sortu ahal izan dute bilatzaile kartografiko birtuala. Oraingoz Gipuzkoako trikuharri, harrespil eta zutarriak daude ikusgai, baina beste lurraldeetako monumentuak ere gehitzen joango dira. Bestalde, aurrera begira, gaztelu, gotorleku eta beste aztarna arkeologikoen bilatzaile izatea ere nahiko lukete. Helbidea: www.aranzadi-zientziak.org.

ACT Nazioarteko Sortzaile Berrien Antzerkialdia maiatzaren 30etik ekainaren 2ra bitartean egingo da Bilbo eta Barakaldoko zenbait aretotan. Euskal Herriko eta nazioarteko taldeek 20 lan eskainiko dituzte jaialdian, eta haietatik 11 atal ofizialean lehiatuko dira. Antzerkiaz gain dantzak eta zinemak era izango dute lekuri egitarauan. Hala, Guggenheim museoko Zero espazioan Dantzine egitasmoa antolatu dute. Hainbat bideolan labor emango dituzte bertan. Bestalde, Bilboko Da Vinci kafe antzokian egingo diren mahai-inguruetan sortzaileek euren lanaren inguruan hausnartuko dute, eta arte eszenikoei buruzko ikastaroak ere eskainiko dituzte.



Honelako albisteak egunero irakurtzeko, jaso hari@ DOAN e-postaz: www.argia.com/harpidetza_haria.php



**NEVERMIND
TRIO**
Be



**JORGE
ABADÍAS**
A Tablero



**JUAN
DE DIEGO
"TRAKAS"**
Erbeste



**JERÓNIMO
MARTÍN
SEXTETO**
Quinoa



**HASIER
OLEAGA**
*Cantus
Caterva*

**ERRABAL
J | A | Z | Z**

94 PK. 20590 SORALUZE
Tel: +34 943 753 016
Mail: errabal@hotsak.com
www.hotsak.com/Errabal
www.errabajazz.com



Abarak

JON TORNER

Eta naziek irabazi izan balute?

Azken garaipena. Iban Zaldua eta Julen Ribas.

Ikastolen Elkartea (2011)

48 orrialde, koloretan. 24 x 32 zentimetro. 12 euro.

AZKEN GARAIPENA “komiki bat” dela esan zuen Iban Zaldua idazleak liburuaren aurkezpenean, ez dela “nobela grafiko bat”, kontzeptu hori marketin asmakizun hutsa dela. Soilik horregatik nire errespetua irabazia zuen Zalduak. Komikia irakurri gabe, ordea, bi egileak “hasiberriak” direla aintzat hartuta, barrabaskeria litzateke hura epaitzea. Irakurri dut azkenean. Benetan txukuna iruditu zait, gidoiagatik zein Julen Ribasen ilustrazioengatik.

Euskarazko komikigintzak izugarri zor dion *Xabiroi* aldizkariaren fruitu da *Azken garaipena*, ARGIAN noiz edo noiz hizpide

izan dugun Dani Fanoren *TeleATOI: Kalabazza Haluzinogenoak* bezala.

Umore ukitu handiagoa zuen beste obra horren moduan, abenturazko komikia da esku artean daukaguna ere, zientzia fikzioa eta misterio poliziakoa ederki uztartzen dituen. Eta, generoak eskatzen duen moduan, fundamentuzko formatuan argitaratu dute, neurri apropos eta azal gogorrarekin, Asterix eta Tintin-en komikien gisan. Lan honek, ordea, zorionez istorio korapilatsuagoa aurkezten digu, helduagoa, nola-bait definitzearen. 2052. urtean kokatua, naziek –Bigarren Mundu Gerraren irabazleek– kontrolatutako Germaniako hiriburuan lan egiten duen Sigrid Frisch tenientea du istorioak protagonista. Sabelean zilborra (!) duen hildako bat, SSko agenteak, iragana alda dezaketen umeak, insurgentzia... Osagai guztiei zentzua ematen die bukaera zirraragarri batek. ■



Ekogunea
kutxa gizarte ekintza


Kutxa Ekogunea,
ekonomia berde bat eraikitzen
www.ekogunea.net

kutxabank

Denbora-pasak

ANA ZAMBRANO

Hitz gezidunak



Kike Amonarizen umorea

Autoa saldu nahian

Mirenek gurasoengandik jasotako autoa saldu nahi du. Egunkarian iragarkia jarri eta deiak jasotzen hasi da. Deitu duten lehen bi pertsonak berehala egin dute atzera, baina hirugarrenak autoa ikusi nahi duela esan dio baldintzak jakindakoan. Handik bi ordurako finkatu dute hitzordua.

Erosle-gaia iritsi eta autoa maitzen hasi da: motorra, gurpilak, karrozeria... Ikusitakoarekin ados

dagoela dirudien unean ordea, bat-batean, jiratu eta berriro autoaren atzealdeari erreparatu dio:

– Aizu! Baina auto hau zuk diozuna baino askoz ere zaharra-goa da!

– Zergatik diozu hori?

– Atzealdean “Athletic. Ligako txapeldunak” eranskailua darama!

Soluzioa

O	E	E	E	E	E	E	E	E	E
A	L	E	L	E	K	A	B	A	I
A	L	E	L	E	K	A	B	A	I
A	L	E	L	E	K	A	B	A	I
A	L	E	L	E	K	A	B	A	I
A	L	E	L	E	K	A	B	A	I
A	L	E	L	E	K	A	B	A	I
A	L	E	L	E	K	A	B	A	I
A	L	E	L	E	K	A	B	A	I
A	L	E	L	E	K	A	B	A	I

zure ziztada behar dugu

Hedabideen aldaketa sakonari indartsu heltzeko, egoera ekonomiko zailari erantzuteko eta BERRIA proiektuaren geroa ziurtatzeko, BERRIAzaleon komunitatea indartu nahi dugu. Erleak bezala, elkarlanean, gai garelako.

Izan zaitez

berrialaguna

Informazio eguneratua
eta euskarri gehiago:
www.berria.info/berrialaguna

berria^{info}

Izen-abizenak:

Helbidea:

PK:

Herria:

Kontu zenbakia:

Tel.:

NA:

Posta elektronikoa:

Abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoa, Datu Pertsonalak Babesteko, beterik, jakinarazten dizugu zure datu pertsonalak BERRIA HEDABIDEEN FUNDAZIOAREN fitxategi automatizatu batera pasatuko direla. Zure esku dago ikusteko, zuzentzeko, ezeztatzeko eta kontra egiteko eskubideak erabiltzea. Hala egin nahi izanez gero, idatzi helbide honetara: BERRIA HEDABIDEEN FUNDAZIOA, Iratxe Monastegia 45, 13. 31011 Iruñea.

Honako ekarpen hau egin nahi diot
BERRIA HEDABIDEEN FUNDAZIOARI,
G71006795 IFK duena:
Adierazi X batez zure aukera

☐ Urtean 100 € ☐ Urtean 200 €
Aldi batean ☐ Aldi batean ☐
Lau zatitan ☐ Lau zatitan ☐

☐ Urtean beste kopuru bat: €
Aldi batean ☐
Lau zatitan ☐

100 eurotik beherako kopuruetan
ordainketa aldi batean egingo da

☐ Hilean 10 €

Sinadura

berrialaguna izan nahi baduzu,
bete datuak eta helarazi:

- www.berria.info/berrialaguna
- **Postaz:** BERRIA. Martin Ugalde
kultur parkea, z/g. 20140 - Andoain
- **Posta elektronikoz:** laguna@berria.info
- **Telefonoz:** 943-30 43 45

Zientzia eta teknologia

JOXERRA AIZPURUA

Bakterio batzuen bizimodu geldoa

AVISA.ORG.VE



LABORATEGIETAN segundoak edo minutuak irauten duten bakterioak lortzen dira. Beste muturrera joanda, Aarhus-eko Unibertsitateko (Danimarka) ikerketa talde batek milioika urtez bizi diren bakterioak aurkitu ditu.

Antza, tropikoetako itsas hondoetako sedimentuetan bizi dira bakterio zahar horiek, ia

oxigenorik ez dagoen lekuetan. Badirudi kontraesana dela oxigeno gutxi dagoen lekuetan bizitzeko egotea, baina horixe izan da ikerlarientzat aurkitutzaren gakoa. Zenbat eta oxigeno gutxiago izan, bakterioak orduan eta gutxiago mugitzen dira, eta horregatik elikagai gutxiago behar dute. Nola-bait, lozorroan bizi dira, bai milioika urtetan bizi ere. Dinosaurioen garaiko bakterio horiek itsas hondoetan topatu dituzte, baina nork esan lur azpian ere aurkitu ez daitezkeenik?

Hain zaharrak izanda, bakterio horiek informazio asko gorde dezakete, eta horren bila abiatu dira ikerlariak.



Hollande eta ikerketa Frantziako Estatuan

EHUKO IRAKASLE BATZUEKIN berriki izandako solasaldietan, EAEn eta Espainiako Estatuan dagoen giro ezkorren berri eman zidaten. Jada iradoki da irakasleek ordu gehiago egin beharko dituztela eskolak ematen, eta ikerketarako finantzabideen zati bat norberak bilatu beharko duela. Horrek bi ondorio izango ditu: batetik, irakasle asko, gazteak gehienak, soberan geratuko dira EHUn, eta bestetik, ikerkuntza talde ekonomiko handien esku geratzeko arriskua dago.

Frantziako Estatuaren Sarkozyrekin antzeko bidea egin zuen irakaskuntzak, eta deigarria egin zaigu Hollanderen lehen hitzak, presidentetza hartu ondoren, horri buruzkoak izatea, “baloreen hierarkia berria ezarri behar dugu eta horren buru, zientzia, adimena, ikerkuntza eta ikasteko zein irakasteko borondatea” esan baitu.

Badirudi krisi garai honetan zentzuzko hitzak inon badaudela. Hala bedi!



REPUBLICA.COM



Plasmazko linternen bidez bakterioak akabatu

Zenbait zientzialari txinatar eta australiarrek pilaz elikaturiko linterna baten antzeko gailu txikia eta eramangarria asmatu dute. Gailuak plasma sortzen du eta minutu gutxian gizakia-
ren larruazalean izan daitezkeen bakterioak akabatzen ditu.

<http://ttiki.com/38480> (Gaztelaniaz)

Artizarra, Lurra eta Eguzkia lerrokatuta ekainaren 5ean

Ekainaren 5ean Artizarra Lurraren eta Eguzkiaren artean kokatuko denez, munduko teleskopio gehienetatik ikusi ahal izango dira Artizarrak Eguzkian sortuko dituen “orbanak”. 2004an antzeko zerbait gertatu zen, baina orain Eguzkiaren jardura intentsitate maximokoa denez oso garbi ikusiko da Artizarra. Ez galdu aukera hau, hurrengo 2117an izango da eta.

<http://ttiki.com/38481> (Gaztelaniaz)

Elebidunek hobeto uztartu ditzakete lan desberdinak

Unibertsitate kanadar batek ume elebidunak eta elebakarrak alderatu ditu. Garunak multiprozesuetarako duen ahalmenaren ingurukoa izan da aurkikuntzetako bat; hizkuntza aniztasuna lan aniztasunarekin lotu dute ikerlariak.

<http://ttiki.com/38482> (Gaztelaniaz)

Babeslea: iametza Interaktiboa

ideia batetik errealitatera



web garapenak



multimedia



aholkularitza



edukiak

iametza
interaktiboa
www.iametza.com
T.943 37 67 16

Landareak

JAKOBA ERREKONDO

Gin jantzia

IZAN ERE, ba al da landarerik gabe egina den ezer? Gauza handirik ez, behintzat. Taxuzkorik bat bera ere ez! Egin kontu, edaten dugun ura, adibidez, landareen artelana, maisulana da. Ur guztia behin eta berriz, askotan, landareen baten barrutik igarota da. Zuztarretik, azaletik edo hostotik hartua eta lurrundua izan da. Hori da hori bahea, irazki naturala. Edan edan!

Landareekin egindako edarien artean bermuta zarrakatu berria dut, eta bere kinina aitzakia hartu. Haren edanean gin-tonica aipatu baita ere. Kininaren iturri kinoari heldu eta tiraka, beste landare ugariarekin bezala, urte guztiko ARGIAKO orri hau osa daiteke. Lasai, ez hartu mehatxutzat, ez dut honelako botika-droga baten bueltan luza eta luza urtetan aritzeko asmorik. Baina, aurrerabidearen bazterrean kinina utzi aurretik arrasto bat, aztarna bat utzi nahi dizut: kino zuhaitz ezagunena *Cinchona calisaya* da, Boliviako Calisaya mendikoa. Dena ezin egingo dizut nik, zeu ere saiatu...

Kininak tonikara narama eta aipatutako gin-tonicarekin kopatik gintera. Eta zer da, bada, gina? Alkohola latz duen edari gogorra da; ia erdia, %40 eta %50 artean du alkohola. Alkohola hori laboreetatik sortzen da: garagarra, garia, zekalea edo oloa ernatu, lehortu eta eho egiten da. Irina beratu eta berotuta aleak zuen fekula azukre sinple, sakarosa, bihurtzen da. Gehitutako legamiak azukre hori alkohol bihurtuko du. Alkohola hori fintzeko destilatu egingo da, hiru aldiz desti-

latu: lehenengoan irinaren muztioa kenduko zaio, beste bietan aho sabaira aparteko dasta emango dioten landareak erantsiko zaizkio.

Ginak derrigor behar duen landare bakarra ipurua da, ipar-ipurua, *Juniperus communis*. Ginean ez bezala, tankerako beste edari batzuk egiteko hego-ipurua, *Juniperus oxycedrus*, ere onartzen da. Ipar-ipuruaren fruitu koxkorak dira ginari bere oinarritzko dasta erantsiko diotenak. Oinarritzkoa diot, gin bakoitza aparteko landare nahasketak osatu eta jantzi egingo baitu. Adibidez inguruan bolada samarrean sumatzen dudana Citadelle gin frantziarrak han eta hemen-

go hemeretzi landare erakusten ditu botilan: Frantziako ipar-ipurua, izar-anisa (*Illicium verum*), bioleta zuztarra (*Viola* sp.) eta azitraia (*Satureja* sp.), Espainiako limoi azala (*Citrus limon*) eta arbendola (*Prunus dulcis*), Indiako intxaur muskatua (*Myristica fragrans*) eta kardamomoa (*Elettaria cardamomum*), Alemaniako aingeru-belarra (*Angelica archangelica*), Marokoko martorria (*Coriandrum sativum*), Mexikoko laranja azala (*Citrus x sinensis*), Txinako erregaliza (*Glycyrrhiza glabra*), Javako piperbeltza (*Piper cubeba*), Mediterraneo mihilua (*Foeniculum vulgare*), Italiako ostargi-belar horiaren zuztarra (*Iris pseudacorus*), Sri Lankako kanela (*Cinnamomum verum*), Indotxinako kassia (*Cinnamomum aromaticum*), Afrikako melegeta (*Aframomum melegueta*) eta Herbehereetako kumino (*Cuminum cyminum*). Munduak janzten du gin hau!



Tolosako lore eta landare azoka

Ekainak 2, larunbata | Triangulo plazan, Plaza Zaharrean eta Berdura plazan

Azoka egun osoan zehar, produktu askotariko mintegiekin: **lore eta landareak, kaktusak, bonsaiak, sendabelarrak, jardineritzako tresnak...**



Artisautza azoka, San Frantzisko ibilbidean:

Ekainak 1, ostirala: 17:00-20:30

Ekainak 2, larunbata: 09:30-14:30 / 16:30-20:30

Ekainak 3, igandea: 11:00-14:30

TOLOSAKO  UDALA

EUSKADI  Goza ezazu

Gabilza  www.gabilza.org

Denboraren makina

NAGORE IRAZUSTABARRENA

Bischoffen argudio pisutsuak



Theodor Bischoff (1807-1882) biologo eta anatomista alemaniarak teoria bitxia formulatu zuen gizon eta emakumeen garunei buruz. Bere heriotzak hipotesia gezurtatu zuen, ordea.

MUNICH (ALEMANIA), 1882KO ABENDUAREN 5A. Theodor Ludwig Wilhelm von Bischoff anatomista eta biologo alemana hil zen. 1835 eta 1843 artean Heidelbergeko Unibertsitate ospetsuko anatomia irakaslea izan zen, hurrengo hamarkadan Giesseneko Unibertsitatean jardun zuen fisiologia eskolak ematen, eta, ondoren, Municheko Unibertsitatean eman zituen bi ikasgaiak. Ekarpengarrantzitsuenak, artean Heidelberg zela, enbriologiaren alorrean egin zituen, ugaztunen obuluen ikerketan, hain zuzen.

Handik aurrerako ikerlanak ez ziren hain arrakastatsuak izan. Urea neurtuz animalien metabolismoa aztertzekeo esperimientuek ez zioten emaitza onik eman. Eta giza garunaren eta garezurraren azterketak ere buruhaustek ekarri zizkion Hannoverreko zientzialariari.

Urteak eman zituen giza garunak biltzen, aztertzen, neurtzen... eta pisatzen. 1870eko hamarkadan ikerketa horiek nolabaiteko ospea eman zioten alor horretan ere, gizonezkoen artean bereziki. Emakumeak, ordea, ez zetozen bat Bischoffen hipotesiekin.

Garun bilduma zabala pisatu eta gero, anatomistak emaitza hauek lortu zituen: gizonezkoen garunaren batez besteko pisua 1.350 gramokoa zen, eta emakumezkoen garunak, aldiz, 1.250 gramo besterik ez zuen pisatzen, batez beste.

Bischoffek gizonezkoak emakumeak baino gehiago direla pentsatzen zuen garun bilduma aztertutako baino lehen ere, eta neurketa horiek bere ustea egiaztatzen omen zuten. Gizakien ahalmen intelektuala burmuinaren pisuaren arabera omen zen eta, beraz, emakumezkoak gizonak baino 100 gramo ergelagoak izan behar zuten. Mugimendu sufragistaren oldar betean, gizarteko goi-mailako emakume askok uhuka eta txistuka arbuiazen zituzten haren hitzaldi eta agerpen publikoak. Zer beste espero zitekeen kaskezurraren barruan 1.250 gramo burmuin besterik ez zuten izakiengandik?

Bischoffek lehendik erabakita utzi zuenez, hil zenean garun pibilegiatua zientziari utzi zion, bildumako beste garun guztiakin batera. 1.245 gramo pisatzen zituen.



Arrastoak

Kleopatra eta Marko Antonioren bikien irudi bakarra

ITALIAKO IKERKETA KONTSEILU NAZIONALAK (CNR) Kairoko Museoan gordeta zegoen eskultura bat Kleopatra Selene eta Alexander Helios bikiena dela baieztatu berri du. Giuseppina Capriotti egiptologoa-ren arabera, Kleopatra VII.a erreginaren eta Marko Antonio jeneralaren seme-alaba bikien irudirik ez da orain arte aurkitu. Beraz, hau da lehena eta, oraingoz, bakarra.

Haur bakoitzak bere izenaren sinboloa du buru gainean: neskatoak ilargia (Selene), eta mutikoak eguzkia (Helios). Kleopatra Selene Numidiako Juba II.a erregearekin ezkondu zen, baina nebaren berri ez zaigu iritsi. Capriottiren ustez, "ziur aski patuak ez zion ezer onik ekarri".

CNR



Kotte Ezenarro

«Egitura instituzionalen eztabaida indartuko du Hollandek»

1949an jaioa. Hendaia da. PSko kidea. Pirinio Atlantiarreko presidenteordea. Hendaia auzapez ohia. Hendaia bozemaileen %67k François Hollanderen alde egin du presidentziarako bozetan. 2014ko udal bozetan alkatetzarako aurkeztuko dela adierazi digu.

MIKEL ASURMENDI

Argazkiak: Gaizka Iroz

“NAZIO MAILAN eman diren emaitzekin pozik nago, eta, batez ere, Departamenduan ukan ditugunekin. Kantonamenduan –Hendaia, Biriatu, Urruña, Donibane-Lohizune– ezker aldera egin du bozemaileak. Hendaian, zehazki, bozen %67 Hollanderen alde izan da, hau da, Sarkozyren bikoitza. Bistan da, boz horiek ez dira PSren aldekoak, antisarkozysmo handia izan da. Halere, emaitzek gogobete naute”, erran digu Kotte Ezenarrok.

Sarkozyren aroa amaitu da, Hollande da Frantziako presidente berria.

Hollande, niretzat, onestasuna da. Sarkozy, berriz, omnipresente izan da Errepublikako presidente izateko. Den-dena ukitu du eta ez du modu “onestuan” lan egin. Haute-tsiok estigmatu gaitu nolabait, hala Erregioko nola Departamenduko kontseilariak. Hemen, Lurralde Elkargoaren alde ari garen haute-tsieko jarrera gaitzesgarria ukan du Sarkozyk.

Hollandek European dauka lehenbiziko zeregina, ekonomiaren alorrean.

Bai. Hollandek hazkunde ekonomikoaren politika berri behar dela dio. Garai berri baten aurrean egon gaitzke, alta, ez du zeregin erraza, Hollandek ezin baitu politika hori bakarrik egin. Garai berria lideratu dezake Alemaniari kontraboterea egiteko, zenbait argi eskaini dezake, baina, betiere, beste herrialdeekin



“Zentro-eskuinarekin kohabitatzea izango litzateke, aukeren artean, okerreina”.



“Ez naiz ez eskuin ez ezker, abertzalea naiz” diote. Errespetatzen dut, baina, nire ustez, ezkerra eta eskuina izan, badaude”.

batera. Merkel-Sarkozy tandemak burdinazkoa izan da. Europako garapenaren eredu bakarra landu dute, eta, beharbada, badago ekonomia lantzeko beste modu bat. Frantziak eta beste herrialdeek aztertu eta proposatu behar dute gerriko estuaren politika saihesteko erdua. Ekonomiaren heretura edo austeritatea ondo dago, baina beste politika bat ere egin daiteke. Espainiako edo Greziako politikaren bidez jendea kale kantoietara baztertzen badugu, ez da Espainiaren edo Greziaren ardura bakarrik, ezta Frantziarena ere. Europa osoa inplikatu dago arazoan. Heretura soilaren politika medio, gero eta prekarietate eta miseria gehiago ageriko da.

Legebiltzarrerako bozak hizpide. UMPk dioenez, eskuinak irabazi behar luke oreka politikoa bermatzeko. Kohabitazioaren beharra aipatu du.

Noski, eskuina kolpatuta dago. Senatuan nagusitasuna galdu zuen eta orain Asanblea Nazionalean galdu dezake. Nire aburuz, Errepublikako presidentek ez badauka Legebiltzarraren sostengu osoa, bere alderdiarena edo ezkerrena, ezin izanen du deus egin. Zentro-eskuinarekin kohabitatzea izango litzateke, aukeren artean, okerre. Hau da, presidentea ezkerreko izatea eta Asanblea Nazionala eskuinekoa. Eskuineko hautetsiak Senatutik, departamen-

duetatik eta udaletxetatik kanpo geratzen ari dira. Joko politikoa nahastu nahi dute eta Legebiltzarrerako hauteskundeak irabazi alde edo moldez. Sarkozyk eskuinaren nagusitasunarekin gobernatu du, eta ez dute arazorik ikusi. Hori eskuinaren ohiko joko maltzurra da.

Nola ikusten dituzu hauteskundeak?

Legebiltzarreko hauteskundeetan ezkerrek berriz ere garaitzea espero dut. Hartara, Hollande presidentek senatari eta diputatuaren ganberaren gehiengoaren laguntzaz bestelako politika egin ahal izango du. Bestela nekez. Egokiena hori litzateke. Bost urteko agintaldiaren ondoren ez badugu deus egin, gurea izanen da porrota. Alegia, boterea izan dugu eta ez dugu deus lortu. Aitzitik, botere horiek gabe, krisia tarteko, ezkerrek ezin baditu bere legeak atera eta bere politikak gauzatu, bada etsipena nagusituko da.

Hollandek François Bayrou zentristaren laguntza jaso du. Horrek zer alda dezake Frantziako politikan?

Bayrou biziki kuraiosoa izan da, bere alderdia oso egoera zailean jarri du, behingoz, zentroko buruzagi batek esan du ezkerreko bozkatzeko duela eta horren zergatia azaldu du. Hala ere, MoDem-ekiko impassea zabaldu da, Bayrourena jarrera pertsonala baita. PSk eskertu dio, baina ez dio,

esaterako, Departamenduari buruzko auzian sinesgarritasunik ematen. Bayrou oso zentrista izan da orain arte: ez eskuin ez ezker, zentrista. Zentroaren arazoa da bakarra izatea. Ezkerra badira anitz, eta eskuina ere bai. Frantziak zenbait zentro daudela diote, nik ez ditut ikusten.

Pirinio Atlantiarretan 4. 5. eta 6. hautets-barrutiak daude. PSk nola jokatuko du?

Berriz ere, hautagaitza denak jokoan izanen dira: FN, UMP, MoDem, Ezkerreko Frontea, Berdeak, ezker muturra, baita abertzaleak ere. PS tarteko, noski. Lehen itzuliko bozak bihotzeko bozak dira. Kontziente gara ez dugula ukanen Hollandek bigarren itzulian ukan dituen bozak. Hollanderen aldeko bozak baino Sarkozyren aurkakoak izan dira hemen ere. Antisarkozysta horien artean Bayrou zale eta abertzale zenbait ere badaude. Hasteko, lehen itzulian ez da aliantzarik izanen. Horrek badu bere arriskua, baina hobe garden jokatzea, aniztasunean. Emaitzak ezagututa, erabakiko dugu bigarrenengan nola jokatu.

EH Bai koalizioarekin akordioak izan litezke?

Ez dira Departamenduko hauteskundeak. Ni ez naiz hautagaia, nik ez dut ezer ordezkatzeko. Nire barrutian, 6.ean Sylviane Alaux da hautagai sozialista. Euskararen Bulegoan engaiatu da, eta Garapen eta Hautetsien kontseiluetan Lurralde Elkargo berri baten alde ari da. 4. eta 5. barrutietan Frantxoia Maitia eta Collete Capdevielle aurkezten dira PSren izenean. Beraien jarrerak ezagunak dira. Beraz, abertzaleek eskuina eta ezkerren artean erabaki behar dute bigarren itzulian.

Nik abertzaleekin izan dudana esperientzia ez da ona. Udal bozetan [Battiste Salaberri da Hendaiaiko auzapeza] zentro-eskuinaren aldeko boza eman zuen abertzale askok. Udalbatzan UMPko kideak daude, eta abertzaleak ondo moldatzen dira eskuinarekin. Abertzaleetan zentro-eskuineko asko ikusten dut, denak ez dira ezkerrekoak. Familia abertzalean, ez gutxi, tradizionalak dira. Ez omen dira eskuindarrak: “Ez naiz ez eskuin ez ezker, aber-

tzalea naiz” diote. Errespetatzen dut, baina, nire ustez, ezkerria eta eskuina izan, badaude.

Lassalette auzapez sozialistaren garaian abertzale gisa aritu zinen udalean. Nazioa, frantsesa alegia, zure mintzoan ez zaizu bitxia egiten?

Ni errepublikarren semea naiz, heziketa errepublikarra dut. Mundu abertzalean aritu nintzen hogeitaz, abertzaleen politikan. Lagunak izan nituen ETAn. Une batez baina, ezin nuen aitzina egin. ETAn historia hauxe da: gazteak onak dira, zahartu eta historikoak bihurtzen dira. Orduan, gazteak bilakatzeko dira onak. Lehenago aritu zirenak ez dira jada onak. Horrek etsiarazi nau. Nik ez dakit abertzale eta errepublikarra izan daitekeen, dena den, ni egungo egitura instituzionala aldatzearen aldekoa naiz.

Departamenduko presidenteordea zara eta zein egituraren aldekoa?

Euskal Herria Lurralde Elkargoaren egituraren aldekoa naiz. Eta bertan biarnesak eta euskaldunak gaude. Beraz, ezin dut alde batera utzi oraingo Departamenduaren aldeko ardura eta lana, biarnesen aldekoa. Anartean, nola aitzinarazi daiteke Iparralde, nola Hegoalde, gatazka konpondu gabe? Lehenik auzi historikoa gainditu behar dugu. Horren arabera egitura berriak definitu eta sortuko dira.

Hollanderen politikak lagunduko al du norabide horretan?

Sarkozyk Departamenduetako kontseilu nagusiak kendu nahi zituen eta Hollandek, aldiz, mantendu

nahi ditu. Sarkozyk departamendu eta erregioetako finantza bitartekoak apaldu zituen eta gure betebeharrak gehitu. Hollandek, aldiz, eskuduntzak hitz eman dizkigu. Hollandek Lurralde Elkargoaren egiturei buruzko eztabaida indartuko du. Horiek horrela, kontsulten aroa zabalduko da. Senatuan badago batzorde bat, Georges Labazéek berak [Departamenduko presidentea] du ardura. Hasteko, kontsultak egingen dira zerbitzu guztietan, Euskal Herrian eta Biarnon, baina bereziki gurean, jakiteko jendeak zer nahi duen.

“Hollanderen aldeko bozak baino Sarkozyren aurkakoak izan dira hemen ere”

Abertzaleen galdera hauxe liteke: Mitterrandek hitzeman zuena Hollandek beteko al du?

Hollandek ez du deus hitzeman, baina egitura instituzionalaren eztabaida jarri du abian. Alabaina, oraingo egiturak aldatzeko lege bat behar da, eta berau ez du presidentek sortzen, diputatuak baizik. Gure aldetik, sozialisten aldetik, borondatea badago. Euskal Herriko nortasun berezkoa baita.

Baterak proposatzen duen kontsulta egin liteke? Zu Baterako kide zara.

Bai. Baina galdera ongi planteatu behar da. Hots, lehenik komeni da jakitea ea kontseilarien eta hautetsien gehiengoak Lurralde Elkargo berri baten alde dagoen. Ondoren, popu-

lazioaren gehiengoak ados ote dagoen berresteko. Nire ustez, egun erreferenduma egingo balitz, ez genuke irabaziko. Agian tronpatzen naiz. Egungo hautetsien nahikariaren arabera bada, ez da aurrera aterako.

Euskal Herrian ere ez?

Hori puntu erabakiorra da. Orain lanean ari gara udazkenean bide orria abian jartzeko. Herri txikiak hautetsien gehiengoak alde dago, baina Miarritze eta Angeluko auzapezak isilik daude. Baionako Jean Grenetek aldeko zerbait esan du. Alliot-Marie itzuli da hona, bost urteren ondoren. Kasu. Dena den, gehien ardura didana Herrien Elkargoaren presidenteen jarrera da. Erregioaz eta Departamenduaz ari gara, baina horiek ere badute boterea eta laxatu behar dute. Ez dute garbi hitz egiten. Alta, bada, eztabaida segitu behar dugu, udazken aldean iritsi gitezke adostasun puntu batera.

Sarkozyk euskal presoan hurbilketa posiblea aurreikusi zuen. Hollandek zer egin dezake alor horretan?

Gu lanean ari gara. Frederique Spagnac da Pirinio Atlantiarreko senataria. Oso laguna dut. Hollanderen kabineteen egon da orain arte. Hollande entzuten gaituen pertsona da. Spagnac, Frantxoa Maitia eta Sylvia Alauxen mezuak ondo ezagutzen ditu. Izan ere, gure mezuak paristarrek hartu eta zabalitzen badituzte, mezua eraldatua izan daiteke, aldiz, guk mezu zuzena helaraziko diogu Hollanderi. Gure problematiken berri eman diogu jada, ezkerrekoak, humanistak eta errepublikarrak garen aldetik, baita Hegoaldeko egoeraz hitz egiteko beharra azaldu ere.

Abertzaleekin ez gaude ados proposamen guztietan, baina gaien %80an ados gaude. Alderdi sozialistak jende askok biziki eboluzionatu du. Gurean badago aldaketen kontra daudenak, egia da. Baina, Spagnac, Maitia, Alaux... alderdi sozialistaren mailetan gora ari dira. Pertsona hauek bertako gaien eleduak dira edota gara.

Pauen, Bordelen eta Parisen hemengo sozialistek dioguna arretaz entzuten dute. ■



LUA arkitektoak
hirigintza
hirigintza aholkularitza
udal planak
urbanizazioak
peritazioak
balorazioak
etxebizitzaren proiektuak
birgaitzeak
barne diseinua...

Rio Arga Kalea 28, 31014 Iruña
Tel 948 13 26 97
lua@luark.com

Azpea
NAVARRA
Denominación de Origen

ARDO EKOLOGIKOAK

Lumbier (Nafarroa)
www.bodegasazpea.com

Finantza krisia

Corralitoaren itzal luzea

Paul Krugman Ekonomia Nobel saridunak egin berri dituen adierazpenek, Bankiaren porrotaren testuinguruan, Grezia eurotik ateratzeaz eta Espainiako Estatuko bankuetan *corralito* bat izateko aukeraz, alarma piztu dute herritarren artean. Zer da banku-corralito bat? Gerta al liteke horrelakorik Espainian?

DANIEL UDALAITZ

PAUL KRUGMAN nazioarteko ekonomista ospetsu eta Ekonomia Nobel saridunak analisi larria egin du Europako ekonomiaren egoerari buruz, eta, bereziki, Grezia eta Espainiako Estatuari buruz. Bankiaren porrotak eragindako krisi larriaren testuinguruan egin du analisi hori, porrot horrek islatzen baitu Espainiako banku eta finantza sistemaren egoera. Izan ere, iceberg arriskutsu baten punta izan liteke Bankia. Laburbilduz, Krugmanek beretzat oso errealak eta gertukoak ziren bi aukerez ohartarazi zuen: Grezia eurotik ateratzeaz eta Espainiko bankuetan *corralitoa* gertatzeaz. Logikoki, trumilka atera dira aukera hori baztertzera –baita teknikoki ere– Espainiako Gobernuak, bere laguntzaileak eta bozeramaile mediatikoak. Ekonomia eta finantza analista batzuek berretsi egiten dute gaur egun Espainiako Estatuan halako zerbait ez dela posible dioen Gobernuaren tesia; beste batzuek, ordea, posible dela diote, baita teknikoki ere.

Argentinako corralitoa

Horregatik, inolako alarmismorik gabe, gertutik ezagutu nahi dugu zer esan nahi duen banku-corralitoak, zer suposatzen duen, eta herritarrei zer ondorio ekar diezaiokeen. Corralitoaz hitz egiteak Argentina dakarkigu gogora –han sortu baitzen termino hori–, herrialde hartan 2001eko abendutik aurrera bizi izan zuten egoeraren argazkia ateratzeko. 21.000 milioi pesoren balioa zuten gordailuak atxiki zituzten.



Fernando De la Ruak ezarritako corralitoaren kontrako jubilatuen protesta.

Neurri horrekin batera etorri ziren kanbio-kontrolak, eta, ondorioz, ez zitzaion utzi inori –ez pertsonari ez enpresari– 100.000 dolar baino gehiago eskuratzen. Egoera hark 2002ko abenduaren 2an izan zuen amaiera, gordailuak askatzean.

Antonio Laje ekonomia-kazetariak sortu zuen *corralito* terminoa 2001. urtean, irati baterako ekonomia-zutabe bat idazten zuenean. Argentinan corralito esaten zaio sarearekin itxitako barruti txiki bati, hodi edo egurrezko egitura duenari; bertan jartzen da haur txikia atsedean har dezan edo jolastu dezan, eta haurrak ezingo du handik alde egin. Analogia horren bidez, kazetariak nabarmendu nahi

izan zuen nola murriztu zuen Gobernuak banku-sistemaren erabiltzaileen askatasuna, hartatik ihes egiteko. Beraz, Argentinan corralito esan zitzaion dirua libre xedatzeko murrizketari, eskudirutan epe jakinean, kontu-korronteetan eta aurrezki kutxetan; murrizketa hori Fernando de la Rúa buru zuen garai hartako Gobernuak ezarri zuen 2001eko abenduan. Geroago, gaztelaniaz hitz egiten den herrialde guztietara hedatu zen termino hori.

Murrizketa horien bidez, dirua banku-sistematik ateratzea saihestu nahi zen, eta modu horretan, banku-izueraren olatua eta sistema geldiaraztea eragozten ahalegindu.

Gerta liteke corralitoa Espainian?

Paul Krugman Ekonomia Nobel saridunen hitzek lurrikara sortu dute ekonomia aditu eta finantza-analisten artean. Batzuen ustez teknikoki ez da posible eta Rajoyren Gobernuaren planteamen-
duak babestu dituzte. Baina beste aditu batzuek Krugmanek beza-
la pentsatzen dute. Gerta liteke corralito hori, eta teknikoki ere
posible da.

Gaur egun Espainian ezin dela horrelakorik gertatu uste dute-
nek banku-corralito bat gertatzeko gordailuen ihes masiboa beha-
rezkoa litzatekeela jotzen dute, eurotik ateratzea eta pezetara
itzultzea, eta hori gaur egun bideraezina eta gertaezina dela uste
dute. Gainera, gordailuen Berme Funtsak babesten ditu aurreztai-
leen gordailuak, zeinak gehienez 100.000 euro berdintzen baititu
bezeroa eta kontuko.

Banku-corralito bat gerta daitekeela diotenek bere garaian
Argentinan izan zen egoera parekatzen dute gaur egungo Espai-
niako Estatuko egoerarekin: zorduntze maila altua; langabezia
handia, bai pribatua bai publikoa; Nazioarteko Diru Funtsaren
(NDF) finantza-presio altua, eta interes altuak zorra dela-eta. Gai-
nera, analista horientzat, banku-gordailuak ateratzearen uholdea
eragin lezake kostu guztia bezeroaren gain jartzearen banku-filo-
sofiak, banku-sistemarenganako konfiantza ezak —Lehman Bro-
thers erortzearen eta Madoff eskandaluaren ondoren—, eta euroa-
renganako konfiantza ezak. Horrela sor liteke “banku-korritu”
deritzona.

Gobernu haren ekonomia-
ministro Domingo Cavalloren
arabera, neurri hori positiboa
zen ordainketa elektroniko
bidezko bitartekoak gehiago
erabiltzea lortzeko, horrela
saihestuko baitzen zergei ihes
egitea eta eragingo baitzen biz-
tanleriaren bankarizazioa.

Atzeraldien eta defizitaren testuingurua

Ekonomia-atzeraldiko eta defi-
zit gorenko testuinguruan era-
baki zen corralito hori ezartzea;
1999an 7.350 milioi pesokoa
izatera iritsi zen defizit hori.
Kanpo zorraren pisu astunak
ito egiten zuen Argentinako
ekonomia eta Gobernuak, eta
areagotu egiten zuen defizita.
Estatua ordainketa-etenduran
sartuko zen zalantzak areagotu
egin zuen “banku-korritu”
baten —edo gordailuen ihesa-
ren— aukera, eta, ondorioz,
2001eko martxoan, bankuetako
gordailuen ihesa hasi zen, bere-
ziki Uruguai aldera. Horrek guz-
tiak gizarte-tentsio handia era-
gin zuen.

Gauzak horrela, Gobernuak
dekretu bat argitaratu zuen
abenduen 3ko datarekin,
debekuak ezarriz finantza-era-
kundeei eta jendeari. Jendeari
galarazi egin zitzaion astean
250 peso edo 250 dolar estatu-
batuar baino gehiago ateratzea
eskudirutan, finantza-erakunde
bakoitzean zituzten kontu guz-
tietatik, bai titular bakarrak bai
titular batek baino gehiagok,
elkarrekin edo bereizirik. Era
berean, debekatu egin zituzten
kanporako transferentziak, bal-
din eta ez baziren kanpo-mer-
kataritzako eragiketei zegozkien-
ak, kanpoan egindako gastuak
ordaintzei zegozkienak
—herrialdean bertan jaulkitako
kreditu-txartelen edo zordun
txartelen bidez—, finantza-era-
giketak baliogabetzei zegoz-
kienak, edo beste kontzeptu
batzuen arabera. Azken
kasu horretan, Banco Central
de la República de
Argentina bankuak
baimena ematearen
baitan egongo litzate-
ke. ■



**VITORIA
GASTEIZ**

Gasteizen euskarazko hauek ez galdu

Gozatu euskaraz liburutegietan!

Gonbit-txartelak astebete lehenago *

JUDIMENDI

> Zuhaitz ipuin-kontalaria
Ekainak 6, 18:00 (5-9 urte) *

ALDABE

> Emeki-emeki urtzen
Antzerkia
Ekainak 12, 18:00 (12-36 hilab.) *

KALDEARTE

Gasteizko kaleko arteen nazioarteko erakustaldia
Ekainak 8-10, Gasteizko zentroko kaleetan

KULTUR ERROTA

>> IGO GORA

Hitzak, soinuak & ehundurak
GEU elkartearen eskutik.
Marco Bianchi, Manex Agirre & Jon Aranburu
Parral taberna
Ekainak 26, 20:30

MONTEHERMOSO

>> TXAPA FEMINISTAK SORTZEKO LANTEGIAK
Ekainak 8, 16:30-20:30

TXIKIART

Aldez aurreko izen-ematea
Beguiratu ikusten duzunaz haratago
Ekainak 9, 18:00, doakoa (4-8 urte)

MH FABRIKA

>> ESTANPAZIO FABRIKA
Uztailako asteazkenetan eta ostegunetan
11:00, 6-12 urte bitartekoentzat

ARGIA&EGUZKI BIDEOAK

>> NIRE BIZITZA OSOAN ESPETXEAN
GEU elkarteak. Ekainak 6, 19:00
>> ETORKIZUNA ERRAUSTUZ
GEU elkarteak. Uztailak 4, 19:00

PRINCIPAL ANTZOKIA

>> TXIRRI, MIRRI ETA TXIRIBITON
Kontzertu didaktikoa: Euskadiko Orkestra
Ekainak 8, 19:00

HIZKUNTZA EKOLOGIARI

BURUZKO JARDUNALDIA

Gasteiz, 2012ko Europako Hiriburu Berdea
Gasteiz ez da elebakarra. Badago ekologia
eta biodibertsitatearen ideietatik hizkuntzen
alorrera jauzi egitea. Ekologia, hizkuntzak edo
iraunkortasuna interesekoak badituzu, hona
hemen jardunaldia. Aukera duzu gai horietan
sakontzeko eta hirian abian jartzeko
proposamenak egiteko.

Ekainak 14, Europa Biltzar Jauregia.
Informazio gehiago:
www.vitoria-gasteiz.org/euskara



Maila duzun hura, euskaraz!



Ayuntamiento
de Vitoria-Gasteiz
Vitoria-Gasteizko
Udala

Raper euskaldunak

Rapa amu euskarara biltzeko

Hizkuntza normalizatzea zerbait bada, hizkuntza horretan gainontzekoetan egiten den guztia naturaltasunez eta normaltasunez egitea da. Musika ere bai, eta nola ez, rapa.

AITOR ZABALETA MERINO

DUELA HAMABI URTE, Selekta Kolektiboa, lehen rap talde euskalduna sortu zenetik asko kostatu da euskaldun talde multzoa osatzea. Alabaina, bere bidea egin du rapak eta Info 7 irratiak, duela gutxi, hedatzen ari den uzta bildu eta zakuan jasotzea erabaki du *Rap Herria* diskoan. 16 musika taldek hartu dute parte.

Bilduma horretan parte hartu duten hiru talderekin (Goienetxe anaiak, 121 krew eta MAK) aritu gara berriketan, rapa eta euskara nola ezkontzen dituzten jakiteko.

Goienetxe anaiak: "Euskal rapak izan dezakeen arazorik handiena euskal hitzun falta da".

Ekaitz Astiz Goienetxe anaiak (Iruñerria) taldeko kidea da. Bertso mundutik dator, nahiz eta ez dituen sekula biak uztartu. Rapak bertsolaritzak ematen ez dion askatasuna eskaintzen dio, azken hau "instituzionalizatuago" dagoelako. Rapean aldiz, "zu zara epailea eta muga".

Rapa gustuko zuela antzemanda, halako batean zer egiteko gai zen probatzea erabaki zuen. Euskaraz:

Eskuinean Goienetxe anaiak taldeko Ekaitz Astiz eta Aritz Gonzalez. Behean ezkerretik bigarrena Endika *Lahaine*, laugarrena Ruben Mateo *Rufoh* eta bosgarrena Eneko Axpe *Maisha*.



GOIENETXE ANAIK-EN UTZIA



121 KREW-K UTZIA

“Ez nuen pentsatu ere egin, nire hizkuntza euskara baita”.

Hizkuntza eta aurrekaririk eza ez ziren arazo edo zailtasun izan: “Erreferente bakarra Selektah Kolektiboa zen. Horrek errespetua ematen du, baina baita zure bidea egiteko erraztasuna ere, inor kopia-tu gabe”. Egitea baino hasia dela zaila gogoraz du raper nafarrak, baina bertigo gaingaituta, euskal rapak izan dezakeen arazorik handiena hitzun kopuruarena dela pentsatzen du. Bere aburuz, “euskal rapak ez du aurrera egingo euskal hitzunik ez badago, euskarak aurrera egiten ez badu”.

Bidenabar, kritika edo eskaera bat du. Euskaraz aritzen diren talde gutxi egoteak ez du esan nahi hizkuntza trakets erabil daitekeenik. Galbahea pasatzea ezinbestekotzat jotzen du, “badaude min ematen didaten akatsak”. Dena den, aitortzen du errealitate guztiek dituztela ñabardurak eta batzuentzat rapa bada euskaraz egiteko izan dezaketen edo duten gune bakarra, “ezin daiteke ezer esan, baina ez dadila utzikeriagatik izan”.

121 krew: Rapa, euskara zabaltzeko eta gazteak erakartzeko

Bilbo eta Barakaldo artean sortu zen duela hamabi urte talde bizkaitarra. Aurreneko pausoak gaztelaniaz eman bazituzten ere, apurka euskararanzko bidea jorratzen hasi ziren, “natural, gure egunerokotasunean euskarak gora egin zuen heinean”.

Hamabi urteotan, taldea pixkanaka handituz joan da. Hori da Eneko Axpe Maisharen adibidea. Maisha taldea sortu eta gero batu zen proiektura. Ordurako 121 krew euskaraz ari zen, eta beraz, betidanik euskaraz rapeatu du: “Koherenztzia puntua da, euskalduna naiz eta euskara defendatzen dut, zer gutxiago”. Berak rapa euskara zabaltzeko eta gazteak erakartzeko tresna ezin



Jon Eyherabide MAK taldeko kantariak dioenez, euskara bizia eta gaztea azaldu nahi dute agertokian.

hobia izan daitekeela pentsatzen du. Horren adibide garbia da Ruben Mateo *Rufob*, taldeko abeslarietako bat. Euskara ikasi du, rapak euskarara ekarri du, “eredugarria eta aldi berean polita da hori”. Dena dela, Euskaltzaindiarekin gogoratu dira taldekideak eta haien ustez, “Euskaltzaindiako euskararekin rapa egitea ezinezkoa da”.

Irratientzako eskaera ere badute, ingelesezko eta gaztelaniazko rapari lekua egiten diotela esan dute, euskarazkoari aldiz, ez.

**Duela hamabi urte,
Selektah Kolektiboa, lehen
rap talde euskalduna sortu
zenetik asko kostatu da
euskaldun talde multzoa
osatzea. Alabaina, bere
bidea egin du rapak**

MAK: “Euskaraz? Beste hizkuntzetan egiten den modura”.

Jon Eyherabidek (Aiherra, Lapurdi), MAKeko kantariak, hitza, erritmoa eta dantza maite ditu eta hori da

rapa beretzat. Raparen Ez dok amairu ote diren galdetuta zera esan du: “Ez dok amairu, *rock radical vasco*, hainbat lagun egiteko manera antzekoekin, maite dut hori, zergatik ez? Elkarrekin indar gehiago izango dugu gure mezua eta erritmoa plazaratzeko eta entzutera emateko”. Eta zein da mezua? “Eszenatokira igotzen gara erakusteko euskara gaztea, bizia dela eta egin daitekeela nahi duzun maneraz”.

Rapak euskarari freskotasuna ekar dakiokelakoan dago, eta ondorioz, jende gehiago gerturatu dezakeela euskarara eta euskal rapera. “Euskarra ikasi eta euskalduna zara. Berriak sartuko dira komunitatera, eta hori nahi dugu, ezta?”. Eyherabidek ondoko mezua igorri die musikariei: “Hala sentitzen baduzue, egin euskaraz. Nik espero dut euskaraz egiteko grina izango dutela”.

Musikariak euskarara gerturatu direlako rapa euskaraz egiten hasi dira eta raparen munduan euskara topatu dutelako euskara ikasteari ekin diote. Rapa euskararen normalizazioaren termometro ere bada. ■



Babeslea: Getxoko Udala

'Gazteak, aisialdia eta euskara Ipar Euskal Herrian' liburua

EUSKALTZAINDIAK argitaratu du Jean-Baptiste Coyos eta Erramun Baxokek egindako lana. Bi euskaltzainek ikerketaren ondoren esandakoaren arabera, "gazteek gero eta euskara gehiago ikasten dute, eskolan etxean baino gehiago. Euskara maite dute, baina ez dute biziki baliatzen kultur ekintzetan eta mugaz gaineko harremanetan". Zinema, joko elektronikoak eta kirola jo dituzte gazteen artean euskararen erabilera sustatzeko baliabi-

derik eraginkorrenzat. Kulturen berriz, bertsolaritza, antzerkia eta dantza dira aukera usatuenak.

Euskara Sustatzeko Ekintza Plana aurkeztu du Jaurilaritzak

EUSKO JAURLARITZAK jendaurrean aurkeztu du Euskara Sustatzeko Ekintza Plana (ESEP), Jaurilaritzaren hizkuntza politika osoaren ardatza. ESEP, Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak eta Euskararen Aholku Batzordeak elkarlanean egindako sarrera dokumentua da. HPSko sailburuorde Lourdes Auzmendik adie-

razi duenez, 1999an onartutako Euskara Biziberritzeko Plan Nagusia osatzera dator ESEP eta Euskara 21 du abiapuntu. ESEPe hiru helburu ditu: euskararen jabekuntza, erabilera eta elikadura; eta esparru guztiak ukituko ditu: irakaskuntza, administrazioa, lan mundua, hedabideak, kirola, aisia, kultura, teknologia berriak...

Plana dagoeneko hainbat gizarte sektoreri aurkeztu zaio eta edozein herritarren eskura dago *Euskara 21* blogean. Ekainaren 24ra arteko epea izango da iradokizunak egiteko eta ondoren proposamenak Euskararen Aholku Batzordean aztertuko dituzte. Jaurilaritzak espero du uztaillean plana onartzea eta 2013 hasieran abian jarri ahal izatea.



Honelako albisteak egunero irakurtzeko, jaso hari@DOAN e-postaz:
www.argia.com/harpidetza_haria.php

TALAIAN

Alternatibak eta baliabideak badaude

Duela urte batzuetatik sufritzen ari garen finantza eta ekonomia krisia sortu zuten Merkatuek (banku handiak, nazioarteko inbertsio funtsak, multinazionalak...) eta euren bozeramaile mediatikoek, murrizketa sozialez eta laboralez gain, honako botika jarri dute martxan: biztanleria nazkatzea, kapitalismoaren aurrean beste irtenbiderik ez dagoela irentsi behar izateraino; amore ematea beste erremediorik ez dagoela sinestaztea alegia. Merkatuen "botika" jakintsu eta produktibo horrek segurtatzen die biztanleriaren zati bat besoak gurutzatuta geratuko dela eta matxinatzea baztertuko duela.

Ez da egia alternatibarik ez dagoenik. Badago. Eta gainera, haiek aurrea eramateko bitartekoak ere badaude, baliabide horiek herritarren gehiengoarentzat onuragarriak izango dira politika sozialetan aplikatzeko borondate politikorik baldin badago behintzat. Euskal Herrian proposamen zentzuzkoa eta zehatza egin dute alderdi soberanistek (EA, Alternatiba, Aralar eta ezker abertzaleak). Proposamen horrek sei neurri dakartza eta "bidezkoagoa, emakumeen eta gizonezkoen artean berdina, ingurumenarekin adeitsuagoa, eta parte-hartzaileagoa den eredu sozial berrirantz" lan egiteko aukera ematen du: erreforma fiskala, azpiegitura handien moratoria berehalakoa, sektore publikoaren aldeko apustua, I+G+B biderkatzea ekarriko duen inbertsio funtsa sortzea, garapen sozialari eta ekonomikoari buruzko eztabaida eskualdeetan, eta banku nazional publikoa.

Lehenengo bi neurriek 1.000 milioi euro aurreztu lezakete, beste politika sozial eta ekonomikoak egin ahal izateko. Ez dago alternatibarik? Utopiak dira? Ez. Baina, gure subiranotasun politiko eta ekonomikoa erabili behar dugu beste eredu sozioekonomiko bat lortzeko, krisitzar hau sortu duenaren erabat ezberdina. Alternatibak badaude. Eta horiek aplikatzeko bitarteko ekonomikoak, ere bai.

Juan Mari Arregi



Tokikom jardunaldiak ekainaren 15ean

TOPAGUNEAK ETA TOKIKOMEK jardunaldiak antolatu dituzte Arrasaten, tokiko euskal hedabideen egocera eta etorkizuna arakatzeko asmoz. Tokikom SL martxoan sortu zen, tokiko hedabideen arteko elkarlana bideratu eta estrategiak garatzeko.

BAHEA

[Luistxo Fernandezek sustatu.com-en esanak](http://Luistxo.Fernandezek.sustatu.com-en-esanak): "Ekitaldi batera joan, eta jakin ez ea euskaraz artatuko zaituzten. Euskaraz bizi nahi izanez gero ordaindu behar izaten duzun deserosotasun horietako bat. Umeekin joanda, deserosoa baino gehiago, mingarria izan daiteke. Iristen zara, eta... edo gaztelaniaz da, edo 'bilingüe' txafardero batean. Gerta liteke, gainera, galdera iristea: euskaraz ala gaztelaniaz egingo dugu? Ez dakit horrekin ze espero den sustatzea, herri-demokrazia edo zer, baina oso deserosoa da talibantzat agertu behar izatea eta euskaraz, mesedez aldarrikatzea, ze, beti dago, nola ez, erdaldukin zu talibantzat hartu eta, kexaren aurrean, gaztelaniara eroango duena jarduna. *Hablemos en castellano, no me impongas tu lengua*".

Bedeinkatuak zordun handiak

MERKATUAK ALA DEMOKRAZIA

horra koska, egungo ereduak biak ez dira posible. Kalifikazio agentzien notak, zor subiranoei egiten zaizkien erasoak, EBko gailurretan duten eragina... Eta guztiaren gainetik, bankuen salbamendu operazioek erakusten dute argien nork agintzen duen.

Hezkuntza, osasuna eta ikerketaren hondoratzea edo milioika langabeturen porrota baino garrantzitsuagoa da Bankia infernuko sugarretatik libratzea, bestela hondamendia askoz handiagoa izango ei delako. Eta iruzur horretan gaude harrapatuta gaur egun finantza krisiak bizi dituzten herrialdeetako herritarrak, Greziakoak, Irlandakoak, Espainiakoak, EBkoak oro har, eta mundukoak ere bai, azken finean, era batean edo bestean katea mundu osora zabaltzen baita. Eta beldurra ere bai.

Ez da gutxiagorako: Espainiako Gobernuak, esaterako, dagoeneko 23.500 milioi euroekin erreskatatu du Bankia. Kalkulatzen da Espainiako bankuak osasun egoeran jartzeko 60.000 milioi bat euro jarri beharko dituela. Eta horiek aurreikuspenak besterik ez dira, beti okerrak, bukaeran erabiltzen den dirua baino gutxiago erakusten dute eta. Gainera, lasai, oraindik Rajoy-k badu tarterik eta, aipatutako kopurua Espainiako BPGren %5-6 besterik ez da, eta Irlandan adibidez, Gobernuak bere BPGaren %30 erabili zuen Allied Irish Banken nazionalizazioan.

Moldea ere bitxia da: estatuak ez dio dirua zuzenean emango Bankiari, horretarako merkatuei eskatu beharko liekeelako eta ezin du. Beraz, Bankiaren akzioak erosiko ditu, baina ez zuzenean, zor jaulkipenaren bidez baizik. Hau da, ezin du dirua egin eta bankuei eman, baina bai zorra handitu. Gero Bankiak Estatuaren zor hori berme gisa

erabili dezake beste bankuetan edo EBZn dirua lortzeko, edo, besterik gabe, merkatuetan zuzenean sal dezake. Azken erantzulea, alabaina, Estatua da, eta honek ere egin dezake porrot, Grezia, Portugal edo Irlandaren erreskateek erakusten duten moduan.

Azken finean, Bankiarako zor jaulkipen honekin PPren Gobernuak EBZren zeharkako erreskate bat bideratzen ari da. Eta bai oraingo finantza krisian, bai hirugarren mundukoaren kanpo zorrarenean argi ikusi den gisan, zorraren zurrumbiloa beti amaitzen da erreskatean.

El País argitaratzen duen Prisak, ordea, urteak darama 5.000 milioi euroko zorrarekin arrastaka, publikoki 2008tik, baina urtetik urtera atzeratzen ditu ordainketak bankuekin

ZENBAT DA 23.500 milioi euro? Adibide batzuk: Gipuzkoako 2012ko foru aurrekontuen laukoitza edo Bizkaikoaren hirukoitza baino gehiago; Euskal Herrian diren abiadura handiko hiru proiektuetan gastatu nahi dena (10.000 milioi bat euro) bider bi; Espainiak ikerketan urtebetean gastatzen duena baino lau aldiz gehiago... Eta bai, badirudi Espainiako ekonomia ministro Luis de Guindosek ondo ikasiko zuela Lehman Brotherseko hondamenditik, 2007an AEBetako Gobernuak erortzen utzi zuenean, bera baitzen banku haren buru Espainian eta Portugalen.

Baina ez da nahiko bankaria izatea dena libre izateko, ez, banku handi bat behar da, bere erorketak

herrialde oso baten finantza sistema edo ekonomia osoa baldintzatzen duena. Orduan bai, orduan, Islandian ez baina Espainian libre da dena: iruzur egitea, kontuak gaizki ematea, kudeaketa ezin txarragoa egitea, etxegabetuen bizkar aberastea... Dena da posible, bestela ondorioak txarragoak izango direlako.

BEDEINKATUAK zordun handiak, haien hondamendia besteena ere izanik, salbamendua bermatua izango dutelako. Hara gertuagoko adibide bat: ARGIAk, adibidez, ez luke luze iraungo 100.000 euroko zorrarekin, inork parte hartu ezean, hiruzpalau urtetan kito. El País argitaratzen duen Prisak, ordea, urteak darama 5.000 milioi euroko zorrarekin arrastaka (publikoki 2008tik), baina urtetik urtera atzeratzen ditu ordainketak bankuekin, 2011ko abenduan ere lortu zuen zorra 2016ra arte atzeratzea.

Baina nola? Zergatik? Erantzun asko bere editorialetan dira. Bere zorrarena ezagututa, irakurleak hobeto uler dezake egunkari honek zein grinarekin defenditzen duen PP eta PSOEren arteko itun orokor bat, baita bankuen erreskaterako ere: "Diru publikoaren ekarpena da banku baten kaudimena berreskuratzeko prozedurarik eraginkorrena, beti ere Estatuak ondoren berau berreskuratzeko ahalmena badu" (*El País*, 2012/5/27, 32. orrialdea). Ondorioa: bere larrian, Komunikazio Biziagoa SAL Prisa baino osasuntsuago dagoela. Euskal hedabideei eta euskal kulturari emandako laguntza publiko estimatu baina urriak kritikatzin direnean, barregura ematen du. Eta lotsa.



Krisitzarra bizi dugun abiadak eragin digula

Ilustrazioak jendeei promestu zien hazkundeak eta azelerazioak bizitza hobea ekarriko ziela, askeagoa. Abiadura handiagotze horren orain arteko azken ahaleginak, neoliberalismoak, krisirik sakonenean murgildu gaitu, kontrol politiko guztiak suntsitu dituelako. Demokraziak denbora eskatzen du eta apenas dagoen.

HARTMUT ROSA (1965) SOZIOLOGIA, filosofia eta zientzia politikoak ikasi ondoren irakasle da Jenako (Alemania) unibertsitatean. Berrikitan frantsesera itzuli dute haren azken liburua: *Aliénation et accélération. Vers une théorie critique de la modernité terdive*.

Elodie Wahlek *Lectures* aldizkarian plazaratu iruzkinean dienez, Frankforteko Eskola famatutik aterako Teoria Kritikoan koka daiteke Rosa. “Proposatzen digu ez bakarrik historia modernoa berrirakurtzea azelerazio sozialaren ikuspegitik, baita gainera ikerketa kritikoak garatzea ere, modernitatearen proiektua (autonomiaren garapena) azelerazioak errotik mehatxatu dezan saihesteko”.

Hartmut Rosaren bi elkarrizketa daude erraz eskuragarri, bata Goethe institutuak ingelesez egina, *The financial crisis as a speeding accident. An interview with Hartmut Rosa*; bigarrena *Le Monden* frantsesez Loic Vanccek argitaratua, *Au secours! Tout va trop vite!* Ondorengo lerroetan bildu ditugu Rosak batean eta bestean esanetako batzuk.

Zergatik behar dugu azeleratzea? Gizarte modernoan ezaugarrietako bat da dinamikoki baizik ezin direla egonkortu, hau da, derrigor hazi eta azeleratu beharra daukatela. Ilustrazioaren promesa nagusietakoa zen

horrek askeago egingo gintuela. Baina bat batean ohartu gara hazkundeak eta azelerazioa gaurko *status quo*a bere horretan atxikitzeke direla beharrezko. Progresoarekiko itxaropena ilundu egin da. Azeleratu nahi horretan ez dugu jokatzeko gauzak hobeto joan daitezela, okerrago ez daitezela baizik.

Ekonomia kapitalisten oinarriko ezaugarri bat da kapitalaren zirkulazioaren abiadura gero eta handiagoaren mende daudela. Zuk erosi eta saldu dezakezu segundo zati batean, baina produzitu eta kontsumitu ez. Horrek eragin du finantzen merkatuak ekonomia errealetik urruntzea, ondorioztat ekarri finantzen krisi erraldoia eta ondoren krisi ekonomiko orokorra.

Ekonomia neoliberalen eta finantza politiken helburua izan da kontrolak kentzea, argudiatuz libre zirkulatuz ekonomia fiteago garatuko zela. Kontrol politikoak denbora kontsumitzen du, batik bat demokratikoa baldin bada. Baina horrez gain, ekonomia arinago doanez kontrol politikoak behar duena baino, finantzen merkatuak eta ekonomia erreala ere sinkronizatu gabe daude. Gaur etekinak lortu ditzakegu ezer produzitu gabe, soilik salduz eta erosiz oinarri errealek ez daukaten akzioak.

Hartmut Rosa –Anne Güntherren irudian– soziologoarentzako Karl Marxek kapitalismoaz egindako analisi ekonomikoak funtsean oso baliagarri izanik ere, hari gehitu behar zaizkio gizarte modernoan bestelako ikuspegiak, berak proposatzen duen abiadurarena esaterako, errealtatea ondo ulertu ahal izateko: historia modernoa hobeto konprenitzen da aztertuz alde batetik azelerazioa nahi duten indarren eta bestetik horientzako frenu bilakatzen diren instituzioen –ximeltzera kondentatuta dauden– arteko dialektikaren barruan. Indar horien arteko sintesia ez da erraza izanen. Kontrolik gabe, abiadurazaleek planeta hondamendira eramango dute. Aldiz, instituzioek horien kontrola hartzeak koste ekonomiko eta sozial handiak lekarzke. Rosak ikertzen darrai, aldatu behar baina ezin duguna gutxiegi ezagutzen dugulakoan.

Ekonomiak lortu du erostea eta kontsumitzea elkarrengandik bereiztea. Jendeak gero eta gehiago erosten du, baina ez gero eta gehiago kontsumitzen. Erostean ditugu janzkiak sekula jantziko ez ditugunak, liburuak inoiz leituko ez ditugunak, CDak inoiz ez entzutekoak. Arazoa sortzen da erosten ditugunak jadanik gauzak ez baina finantza produktuak direnean, honela laguntzen baitugu finantzak ekonomia errealetik bereizten.

Krisia sortu duten aditu berak omen dira orain konponduko dutenak. Hori litzateke esatera zahar hari jarraituz sinestea katuak zainduko duela esnea. Arrisku handiena da denak berdin segitzea. Eta ez da ikusten politikak aski indar izango duenik kontrola berreskuratu eta kapitalaren zirkulazioa mantsotzeko.

Bizitzeko denborarik ez

Petrolioaren ondoren denbora da gauzarik urriena, honek dakartzan ondorio patologikoekin. Jendeek inoiz baino gehiago sufritzen dute hazkundeagatik eta azelerazioagatik.

Denborak txikiagotu du espazioa. Garraiobideen, kontsumoaren, komunikazioaren azeleratzearekin, badirudi planeta txikiagotu egin dela. Edozein lekura, azkar, merkeago eta neka handirik gabe iritsi daiteke, baina gainera, komu-



nikazioen azelerazioarekin, posible da Internetetik jaiste nahi den herrialdeko edozein musika, liburu edo film, *like* bakan batzuetan.

Alabaina, gero eta arinago hartutako erabaki bakoitzak murrizten dizkigu zeharkatzen dugun herrialdeaz edo kontsumitzen dugun produktuaz gozatzeko aukerak. Oporretan bertan, dena egin behar dugu oso azkar, gimnasia, errejimena, aisialdia, liburua irakurri, diskoa entzun, leku bat bisitatu. Bizi erritmoaren azeleratze honek estres eta frustrazio asko eragiten ditu. Azken finean, kontsumoa bera ezin baitugu gehiegi azeleratu.

Oporretatik itzulita postontzia beteta daukagu, faktura berriak iritsi dira, haurrek material berria

behar dute eskolarako, halako ikas-taro profesional batean izena eman beharko genuke, profesionalki hobetuko nindukeen hizkuntz eskolan, jubilazio plana zaindu, osasun aseguru ahalik eta onena, telefono konpainiarekin gustura ez nabil, eta ohartu naiz gorputza ahaztu dudala, ez dut aski ariketa egiten, arriskua daukat galtzeko nire gazte itxura, hain kompetitiboa.

Azken finean, denbora unitate bakoitzeko ekintza kopurua handitzeak, bizitzeko erritmoaren azeleratzeak, denok astintzen gaitu. Gure baitan eta "kanpoan". Laburragoak dira otorduak, atsedenaldiak, familiarekiko tarteak, hiletak, paseoak, loaldia bera. Beraz, une horiek den-

tsoago bihurtu behar ditugu. Azkarago bizi, otoitz egin, jan... Distantziak laburtzen dira, mugimenduak azeleratzen, multitareak ugaritzen, aldi berean gauza bat baino gehiago egiteko. Horrek larriagotzen ditu ezintasuna, errunduntasuna, estresa, ordutegien itolarria, ezin jarraitu ahal izatearen beldurra. Ohartzen gara ez dugula ikusten nola pasatzen den gure bizia, esku artean ihesdoakigula.

Azelerazioaren aroan, oraina ezegonkorra da, laburtzen doa, dena zaharkitzen da berehala, ofizioak, teknologiak, objektuak, bikoteak, familiak, programa politikoak, pertsonak, jakintza, kontsumoa.


Gizarte premodernoa, XX. mendera arte, orainak gutxienez hiru belaunaldi hartzen zituen, mundua ez zen asko aldatzen aitonaren eta bilobaren artean. Modernitate garaian, XX.eko lehen erdian, belaunaldi bakarrera estutu zen: aitonak bazekien bilobek bestelako bizimodua eramango zutela, ezin zien askorik irakatsi, hauen esku zegoen mundu berria sortzea, 68ko maiatzean, esaterako.

Gure modernitate berantiarrean, mundua aldatzen da behin baino gehiagotan belaunaldi bakoitzeko. Gurasoak ezin dio asko erakutsi haurrari ez eten gabe aldatzen doan familiaz, ez etorkizuneko ofizioez. 18 urteko gazteak entzungo dituzu aipatzen "lehen" nola ziren gauzak, 10 urte zituztenean alegia. Oraina laburtuz doa, ihesi. Berarekin mehetzen da errealitatearekiko, nor-tasunarekiko, daukagun sentimendua. ■



ZINKUNEGI
OPTIKA

Hernani, 23 · 20004 Donostia · T. 943 420 624
info@zinkunegioptika.com
www.zinkunegioptika.com



Zerbitzua
Kalitatea
Garantia



Inma Errea

Nori berea

Euskaldun gehienek uste dute *Isil-isilik* abestia herri abestia dela. Eta egia da. Baina ez da egia. Alegia, orain berrogeita hamar urte inguru Eibarren jaio eta Ordizian hil zen

Fernango Goenaga Iribarrenek sortua da. Alde honetatik egiledun abestia da. Baina harrez geroztik, isil-isilik, Euskal Herriaren bihotzeraino sartu da eta gaur egun oso gutxi izango dira inoiz doinu horren kulunkan samurtu ez diren euskaldunak. Horrela begiratuta, beraz, herri abestia da”.

Halaxe zioen, orain dela hamar urte ia, Jose Ignazio Ansorenak aldizkari honetan bertan argitara emandako *Ixil ixilik* izenburuko artikuluan. Egia da, kanta horren kulunkan edonor samurtzen da (hori izan genuen sehaska-kantarik eraginkorrena gurean alabarekin nahiz semearekin), eta egia da, baita ere, abestia, “egileduna” izanik, herrikoi bilakatu dela erabat eta aspaldi.

Euskaldunon artean, kantak oso erraz, eta oso azkar, bilakatzen dira herrikoi. Proporziorako, batzuek herrikoi jotzen dituzte *Egun da Santimamiña* edota *San Simon eta San Juda*. Eta bai, egia da, herrikoiak dira, herriak, jendeak, bere egin dituelako. Baina nori berea eman eta kanta horien hitzak Gabriel Arestik idatzi zituela eta lehenaren doinua Arrizabalaga batek eginga dela guztiok jakin-go bagenu ere, kantek diren bezain herrikoi segituko lukete izaten, eta, aldi berean, gure kultura aberastuko genuke hein batean bederen, edozein festa-afari-ospakizun-parrandatan kantatzen diren abestien eta euskal literaturaren arteko lotura estuak agerian utzita.

Aurtengo Aste Santua baino lehentxeago Karl Jenkins eskoziarraren *Stabat Mater* musikalanaren latinezko hitzak euskaratzeko enkargua iritsi zitzaigun lantokira. Latinez nork eginga zen (Jacopone da Todi, omen) esaten zuen agiriak, eta gaztelaniara egindako itzulpenaren egilea Lope de Vega zela ere azaltzen zuen. Euskaraz ere baziren pasarte batzuk, eta horiei buruz agiriak “anonimoak” zirela esaten zuen. Bilatzen hasi eta ikusi genuen jada euskaraz emanda ziren pasarte gehien itzultzailea Nikolas Ormaetxea *Orix* zela, eta testuan bazirela, tartekaturik, beste pasarte batzuk non ezinezkoa izan bainuen itzultzailea identifikatzea.



Orain hilabete bat-edo berriro gertatu zen: itzultzeko iritsi zitzaigun kontzertu baten programan herrikoitzat jotzen zituzten *Euskal Herrian euskaraz*, *Xalbadorren beriotzean*, *Txoria*, *txori*, *Gora ta gora beti* eta *Isil-isilik* dago.

Dudarik gabe, euskal herritarrok kanta horiei hain harrera ona egin izanak Xabier Amuriza, Natxo de Felipe, Xabier Lete, Joxean Artze, Mikel Laboa, Gabriel Aresti edota Fernando Goenaga ohoratzen ditu, baina ohore horren erdia herrikoitasunaren putzu sakon-ilunean hondoratzen da (Urkoren baimenarekin...) herrikoitasuna eta anonimotasuna nahasten ditugunean, eta altxorraren parte bat galtzen dugu euskal kulturaren itsaso zakarrean.



Euskaldunon artean, kantak oso erraz, eta oso azkar, bilakatzen dira herrikoi. Proporziorako, batzuek herrikoi jotzen dituzte *Egun da Santimamiña* edota *San Simon eta San Juda*. Eta bai, egia da, herrikoiak dira, herriak, jendeak, bere egin dituelako. Baina nori berea eman eta kanta horien hitzak Gabriel Arestik idatzi zituela...




Ez dakit nola zuzen daitekeen egoera, baina uste dut egin beharko genukeela nola edo hala. Euskal kantak aipatzean kontu pitin bat gehiago eman egiletzaren aferari. Eta euskal literatura irakasten denean euskal musikagintzari lotzen dizkion hariak nabarmendu. Gure tradizioa ongi ezagutzeko, iraganean egindakoak magma bereizigabe eta lauso batean ez galtzeko.

Gure kulturak sustrai sakonak eta hari anitz eta luzeak baititu, eta merezi du horiek guztiak ahalik eta modu zehatzean helaraztea gaur egungo mundura eta gero-ko belaunaldietara. ■



ASTE HONETAKO

zozketa



Atxaspi Hotela

Asteburu pasa
bi lagunentzat

Bittiria kalea, 24
Lesaka NAFARROA

www.atxaspi.com

1

Kafe
AN
ZOKIA



Bilboko Kafe Antzokia

Annie B Sweeten kontzertua

5 lagunentzat bina sarrera

Done Bikendi, 2
Bilbo BIZKAIA

www.kafeantzokia.com

2




Inguru Abentura

Arroilak (I. maila)
3 harpideentzako bina sarrera

San Juan kalea, 18
Albeniz ARABA

www.inguruabentura.com

3



Elur-antzara

Paul Gallico

5 liburu opari

HamaikaBooks
www.elur-antzara.com

4



Okatxu

2 komiki opari

www.argia.com/denda

5

AZKEN IRABAZLEAK (2323. Argia)

BESARO Landa Hotela

- Martin Garitaonandia Aristegi (Arrasate)

ARTIUM Arte garaikideko euskal zentro museoa

- Asis Trebiño Galarraza (Donostia)
- Jokin Ginea Kortajarena (Galdakao)
- Andres Alberdi Gorostiaga (Elgoibar)

ILLIMANI liburua

- Aitzol Goikoetxea Goldarazena (Hondarribia)
- Felipe Alkorta Andonegi (Donostia)

INGURU ABENTURA Arroilak II. maila

- Josu Mendicute Rodriguez (Eibar)
- Kepa Zamalloa Ozerin (Oñartzun)
- Jose Luis Hormaetxea Alboniga (Bermeo)

EUSKAL ESKOLA PUBLIKOA mutilen kamisetak

- Oresako Udal Liburutegia (Orexa)
- Donibane Irrintzi Aek Euskaltegia (Iruñea)
- Mikel Escudero Aizpurua (Deba)

* Bisitaldietarako epea: Bi hilabete

PARTE HARTZEKO

Astelehenetik ostiralera 08:00-15:30

Tel: 943 36 72 85 • gunea@argia.com

www.argia.com/gunea

ginea


argia



Eskola Txikien Festa ta

25 urte herri eta
auzo txikiak hezitzen

Zorionak



*Zatozte
ospatzera !!!*

10:00 Txupinazoa, plazan

10:00-12:00 Eskulanak (8-12 urtekoentzat),
Hezkide eskolan.

11:30 Pirritx eta Porrotxek ere 25 urte!
Plazan.

13:00 Ekitaldi Nagusia. Urbeltza plazan

14:00 Euskolabel bazkaria frontoian

15:00 Gorriti eta bere animaliak, Otsozabal
gunean.

17:00 Kupela Taldea, plazan.

EGUNEAN ZE HAR...

-Puzgarriak (10:00-13:00/ 15:00-18:00)

-Eskola Txikien dokumentalaren proiektzioa
eta

erakusketa (11:00etan eta 16:00etan),
eskolan.

-Larraulgo eskola zaharrari buruzko
erakusketa, Ekomuseoan.